

uztarria

nun

[AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA]

2007ko uztaila ▶ 86. zenbakia ▶ www.uztarria.com



PILOTA ATXIKIZ

ILUNPE ELKARTEAK 25 URTE DARAMATZA ESKU PILOTA SUSTATZEN

KAZETARITZA ▶ Mikel Aiestaran, krisialdietako esataria



EUSKARA



• Itzulpenak.

• Euskara planak:

- Bai Euskarari Akordioa herrietan garatzeko eta zabaltzeko zerbitzua.
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) herrietan gauzatzeko laguntza eta aholkularitza tekniko.

KOMUNIKAZIOA

• Irudi korporatiboa osoa lantzen dugu:

- anagrama eta logotipoa.
- katalogoak, diptikoak, kartelak, aldizkariak...
- papertegia: orriak, gutun azalak, txartelak...
- seinaletika: errotuluak, panelak...



EREGI

EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA



*zure zerbitzura
gaituzu!*

goiko kale 5, 3A
tel.: 943 08 06 88
20730 azpeitia (gipuzkoa)
e-posta: eregi@eregi.net

Txalintxo



Txalintxo mendia Azkoitia aldean dago, baina pasa den mendearen hasieran epaile batek Azpeitiko zela erabaki zuen, azkoitiarren kaltetan. Pozik hartu zuten erabakia azpeitiarren, eta bertsoak ere atera zituzten. Festa handiak ere antolatu omen ziren.

Pixka bat gorago dago Munoaundi. Bertan dago gaur eguneko Azpeitia eta Azkoitiaren arteko muga. Eta bertan omen dago Brontze edo Burdin Aroko herrixka harresitu bat.

Uztailaren 2an hasiko dira han indusketak

egiten, Sonia San Jose Aranzadi Elkarteko arkeologoak zuzenduta. Hilabete osoa iraungo dute ikerketek, eta datozen urteetan jarraipena izango dute.

Ez dut zalantzarik egiten kontu ugari argitu digula ikerketak. Urte gutxitan aurrerapen handia egin du Euskal Herriko prehistoriari buruz dakigunak. Horren adibide dira azkenaldian agertu diren liburu, artikulua, argitalpen eta erakusketak.

Oraingohonetan, hurbil-hurbileko prehisto-

ria ezagutzeko aukera izango dugu. Urolaldeko bertako arbasoen berri izango dugu. Hala ere, ez dakigu ikerketa horiek nolako emaitza emango duten. Ez dakigu herrixka horretako biztanleak zeintzuk eta nolakoak ziren guztiz argituko diguten.

Agian, epaile batek erabaki beharko du Munoaundiko biztanleak azpeitiarrak ala azkoitiarrak ziren. Edo, azkenaldiko joerari eutsiz, euskaldunak ala espainolak ziren erabakiko dute Madril aldeko epaileek.

uztarria▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarria Azpeitiko Kultur Koordinakundea

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia.
943 15 03 58

Posta elektronikoa.
uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 86.a (2007ko uztaila)

Urtea. IX.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua. EREGI
Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarria@uztarria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.500 ale

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. Maider Zendoia

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

[u-iritzia]

08 Inkesta. Udalekuen garaia dator eta Uztarriak Azpeitiko gazteak begirale nonbaitera joaten al diren jakin nahi izan du.

06 Arinkeria. Jon Larrañagak bere artikuluan udako abestien eta politikarien jardunaren konparaketa egin du.

[u-mamia]

12 Mikel Aiestaran. Munduko hamaika txokotan izana da kazetari. Azkenaldian, Ekialde Hurbilean dabil.

15 Klik. Gero eta gazte gutxiagok prestatzen dute San Joan sua.

20 Ilunpe Elkarte. 25. urteurrena ospatuko du aurten. Sasoian da.



20

[u-jakiteko]

26 Sahararak. Uztailaren 21 ean Sahararren Eguna izango da Azpeitian, eta hango berri emango dute.

[u-euskara]

36 Mikel Zalbide. Patxi Altuna zenaren lekua hartu du Euskaltzaindian, eta honek euskararen alde egindako lana azpimarratu du.



15



36



UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)





Enbido ▶



Koldo Aldalur

Anton Carabina

Udaberriko zizekin gertatu ohi den legez, oso zaila da gure belaunaldikoen artean pertsona jatorren bat topatzea. Ez berez, genetikaz, okerrak garelako, psikologo 'sasi-listoek' dioten bezala uneak eta giroak okertu gintuztelako baizik.

Orain, europarrak garelako, *bullying* deitzen diogu orduan egunero eskolara joateari? Woody Allenek dio aitak behin baino ez zuela jo, 1968tik 1973ra; hori bai, etenik gabe. Guri ere antzekoa gertatu zitzaigun. Gerta zitekeen edozein astearte buruzuritan eskolara joan eta, isilik ez egoteagatik, edo, besterik gabe, egunero lo bakarrik egiteak derrigorrez gogorra behar duelako, fraidearen eskuaren epelak matrailean uzten dituen amorrua eta mendeku nahia dastatzea goizean. Eskolakide gazte baten mendiko botaren indarra atzealdean igartzea eguerdian, eta, "zerbait egingo zenuen!" entzun ondoren, ohera epel-epel eginda joatea gauean. Eta ez genuen pentsatuko aparteko eguna izan zenik. Hori, '*vascos contra castellanos*' borrokarik ez bazen tartean. Gehienetan, lehen Agroman zen hartan biltzen ginen, nor zen bertakoa eta nor kanpotik etorritakoa garbi lagatzeko. Bestelako arazorik? Ideiarik ez baina, futbolarekin batera, kirol nazionala zen: bi blasta eman, lau bellarondoko hartu eta, kristorena egin bagenu bezala, etxera. Arrazismoa, hura bai zela arrazismoa!

▶ **HARTU ETA EMAN.** Beraz, gure belaunaldiko ei ez diezagutela eska egunero gure bizitza aztoratzen duten arazoen aurrean egoera patxadan aztertzea, besteen iritziak entzutea edo kontsentsuko bideak hartzea. Gurea, hartzea eta ematea da.

Gerta zitekeen ere etxerako bidean eliz atarian neskailak kantuan entzutea: "*Las niñas bonitas no pagan dinero...*". Beraz, politik ez zirenek beraien zegokiena eta politei zegokiena ordaindu beharra zuten ibaia txalupan pasatzeagatik,

eta ez dut pentsatu ere egin nahi politik zirenek nola ordaintzen zioten txalupazaleari eginiko garrario lana. Auskalo!...

▶ **ABESTIEN MEZUAK.** Gerta zitekeen sehaska ertzean amaren bat haurrari, oharkabeen gehienetan, mehatxuka entzutea: "Zakur handi bat etorriko da, laster ez baduzu egiten lo. Horregatikan, ene potxolo...". Dardar batean hartzen zuen gaixoak lo. Eskerrak fardela soinean zeraman!

Eta hau? "*Yo soy la cantinera, niña bonita del regimiento...*". Ukitu militar nabaria duen abesti horretan neska polit batek erabat irtenda jartzen zituen kuarteleko soldaduak. "*Se cuadran, me saludan, me dicen al pasar...*". Eta, jakina, neskak ederraren rolean sartu ziren gajo haiek ziren berbenatan dantzarik ematen ez zutenak.

Okerragoak, askoz abesti okerragoak ere baziren. Entzun: "*Anton Carabina mató a su mujer, la metió en un saco, la lleva [?] a moler...*". Errotariak esan omen zuen hiltzaile matxista nardagarri hark poltsan zeramana ez zela irina, emaztearen hilotza baizik. Hura abesten zuten neskek ez zekiten zer zetorkien gainera! Mutilen kaskezurrean ere iltzaturik geratu ziren, zoritxarrez, abestien letrak.

Baina beldurrik handiena era guztietako sotana eta uniforme artetik zetorren... "Bikotea, merienda eta gero, bekatuan hasi zen eta, hura ikusirik, zeru altuan zelatan zebilen putre batek mokoan zeraman ardiburua askatu eta mutila jo zuen, eta bertan hil. Hurrengo goizean, neska ohetik jaiki zenean gelako egurrezko zoruan mutilaren hankamarkak zeuden; hain zen handia infernuko txikittoa errege den leku beldurgarrian den beroa... Atera kontuak". Hori errezildar zahar batek kontatu zidan, sermoilari ospetsu bati entzun ziola gaineratuz.

Eta horrelakoak, zenbat? Kontalari on asko omen dago zahar etxean. Liburu mardula betetzeko adina emango luke hara egindako bueltatxo batek. Ondorioz, abesti, istorio, sotana eta beste, nire belaunaldikoen artean jatorren bat topatzea ia ezinezkoa da: arrazistak, biolentzia zaleak, beldurtuak... Hori bai, erdi jatorrak direnek, ez didazue ukatuko, kristoren meritua daukate.

HILEKO ESALDIA ▶

Azpeitianitoaren definizioa, geroxeago topatuko duzue

Baserritarren eguna

uztailaren 22an

burruntzian erretako
txekorra 12:00etan plaza

ZATOZ DASTATZERA!



'Bertan jaio eta hazitako ganadua.
KALITATEKO okela nahi baduzu,
GUREAN aurkituko duzu!'



**Euskal
Okela**
Carne de Vacuno
del País Vasco



soilik baimendutako
harategietan

Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Arretxe, 21 Tel.: 943 151382
AZPEITIA



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKO 15 00 03
AZPEITIA

**Harategi
Odriozola**

Harategi
Especializatua

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Orenak

San Inazio Kaleko 12an
Urrut.: 943 81 14 98



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO
HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
TFNOA.: 943 811671



Jon Larrañaga

Arinkeriak

Munduan zerbait errepikakorra, astuna eta hobera beharrean txarrera doana bada, hori udako abestia da. Gaixotasun edo birus bat bezalakoa da, urtero agertzen da eta, behin barruan sartuta, ezinezkoa da ateratzea.

Askok exageratzen ari naizela pentsatuko duzue, baina astindu burua: Gozategi, Sorotan Bele, Sonia eta Selena, *El tiburón*, *El venao*... Gure memoria historikoan dauden abestiak dira eta, zorionez edo zoritxarrez, behin baino gehiagotan abestu ditugunak. Saninazio gau beroetan zenbat aldiz dantzatu ditugun...

Udako abestien kontua, gainera, estrategia berezia eta aztertzeko modukoa dela iruditzen zait.

Nik uste abesti hauek musikariek baino gehiago hipnotizatzaileek sortu dituztela. Gure une ahulak aprobetxatu eta hipnosiaren bitartez, geure garunean abestia sartzea lortzen dute. Behin abestia barruan dela, gainerakoa irratiek eta taberneak egiten dute; izan ere, horiek guztiz 'konpintxatuta' daude udako abestien egileekin. Behin eta berriz jartzen dute abestia, eta gure belarriek entzun eta hipnosiaren bitartez sartu diguten abestiak bizitza propioa hartzen du gure buruan...

Ziur nago bat baino gehiagok pentsatzen duela: "Hori tontakeria pila esaten ari dena hau! Bizi ditugun garaiak bizita, arinkeria horietan aritzea ere!".

Aldaketa bat proposatzen dizuet. Kendu 'udako abestia' hitza eta jarri 'euskal gatazka' haren orde. Eazer iruditzen zaizuen.

▶ **LAINO BELTZAK.** Opor giroan bete-betea sartuta, Euskal Herriko zeru urdinak (tenporei kasu handirik ez diet egin) berriro laino beltzez bete dira. Agian, beti hor egon dira eta ni ez naiz ohartu. Amets batean egon naiz. Amets horretan, ordea, ostarte garbiak eta eguzkia ere ikusi ditut, eta orain berriro dena ilundu da. Batzuek eta besteek dena ilundu didate.

Arinkeria puntu batekin jarraituko dugu. Politikoa eta oro har politika, Georgie Dann eta bere *La barbacoa* baino astunago, aspergarriago eta

errepikakorrago bihurtu zaizkit. Udako abestietan behin eta berriz entzuten ditugun betiko leloak, euskal gatazkaren inguruan entzuten ditugun 'bakea', 'demokrazia', 'elkartasuna', 'gizartearen ahotsa' eta horrelakoekin parekatzen ditut. Horiek ere hitz ederrak baina, zoritxarrez, gure inguruan topiko bihurtu direnak, edo dituztenak.

▶ **POLITIKOAK.** Politikoen hitzek, udako abestiak egiten dituzten *kleenex* abeslari horien adina-ko bizitza dute: zeharo laburra. Denbora pasatu ahala abestiak nahastu eta ahazten ditugun bezala, politikoen ideiak, mezuak eta leloak ere nahastu egiten ditugu... Edo okerragoa dena: sinesgaitzak egiten zaizkigu. Gizartearen hitza eta ahotsa izan behar luketenak, ezezagunak (edo, zoritxarrez, ezagunak) zaizkidan interesen morroi bihurtu dira.

Egoera horren aurrean jendeak jarrera ezberdina hartzen ditu. Batzuek paso egiten dute. Beste batzuek, berriz, oraindik eta gehiago sutu eta euren bizitzako oinarri bihurtzen dute politika. Nik nire inguruan beste jarrera bat ikusi dut: umore beltza. De Juanaren gose greba, bahituta egon diren istorioak, bizkartzainen beharra dutenen egoera... dena bihurtzen da esplikagai umore beltzaren bitartez.

"Errespeto falta", "lotsagabekeria", "arduragabekeria"... esango duzue. Nik defentsa mekanismoa deitzen diot eta horren azpian dagoena ere argi ikusten dut: nekea, aspermena, desilusia eta orain, inoiz baino gehiago, mesfidantza...; denenganako mesfidantza.

Nire arinkeria ere mekanismo defentsa da. Euskal gatazka eta udako abestia nahastea arinkeria da, egia, baina beharrezko iruditzen zaidan mekanismoa da. Gure bizitza, herri sentimenduari dago-kionez, *montaña rusa* bihurtu da; beti gaude etsipenean murgilduta edo ilusioz beteta, baina beti gabiltza gora eta behera. Horregatik, uda eder eta luzea opa dizuet. Bota krema eta hartu eguzkia, atsedean hartu, jan izozki ederrak, eta bota milaka parranda. Penak eta tristurak alde batera utzi, uzten diguten heinean; eta garrantzitsuena: indarra hartzeko gomedioa egiten dizuet. Ea indarberrituta oporren bueltan denok kalea geure egin eta politikoak alde batera utzita, benetan zer nahi dugun ozen esaten dugun. Izan ere, guztiok gauza bera nahi dugu, ezta?



alde zaharra
alde zaharreko
merkatarien elkarria

Julian Elorre 15
Erdi kale 14
Lidia Janiza
Erdi kale 15
Erdi kale 6
Erdi kale 7
Erdi kale 10
Erdi kale 16
Erdi kale 17
Erdi kale 18
Erdi kale 19
Erdi kale 20
Erdi kale 21
Erdi kale 22
Erdi kale 23
Erdi kale 24
Erdi kale 25
Erdi kale 26
Erdi kale 27
Erdi kale 28
Erdi kale 29
Erdi kale 30
Erdi kale 31
Erdi kale 32
Erdi kale 33
Erdi kale 34
Erdi kale 35
Erdi kale 36
Erdi kale 37
Erdi kale 38
Erdi kale 39
Erdi kale 40
Erdi kale 41
Erdi kale 42
Erdi kale 43
Erdi kale 44
Erdi kale 45
Erdi kale 46
Erdi kale 47
Erdi kale 48
Erdi kale 49
Erdi kale 50
Erdi kale 51
Erdi kale 52
Erdi kale 53
Erdi kale 54
Erdi kale 55
Erdi kale 56
Erdi kale 57
Erdi kale 58
Erdi kale 59
Erdi kale 60
Erdi kale 61
Erdi kale 62
Erdi kale 63
Erdi kale 64
Erdi kale 65
Erdi kale 66
Erdi kale 67
Erdi kale 68
Erdi kale 69
Erdi kale 70
Erdi kale 71
Erdi kale 72
Erdi kale 73
Erdi kale 74
Erdi kale 75
Erdi kale 76
Erdi kale 77
Erdi kale 78
Erdi kale 79
Erdi kale 80
Erdi kale 81
Erdi kale 82
Erdi kale 83
Erdi kale 84
Erdi kale 85
Erdi kale 86
Erdi kale 87
Erdi kale 88
Erdi kale 89
Erdi kale 90
Erdi kale 91
Erdi kale 92
Erdi kale 93
Erdi kale 94
Erdi kale 95
Erdi kale 96
Erdi kale 97
Erdi kale 98
Erdi kale 99
Erdi kale 100

alde zaharra
alde zaharreko
merkatarien elkarria

alde zaharra
alde zaharreko
merkatarien elkarria

Moxpit & Txilbor ▶ Xanti Rodriguez



Galdetuz ▶

Udan nonbaitera joaten al zara begirale?

MAITE ARANAGA ▶

azpeitiarra



"Azpeitiko udaleku irekietako begirale izateko hartu naute. Lehenagotik, Bernedon izana

naiz, eta adimen urrituen begirale berezi bezala ere ibilia naiz".

ANA BASTIDA ▶

azpeitiarra



"Tarragonara joango naiz Txolartetik, uztailako lehen hamabostaldian.

Jendea joatera animatuko nuke. Lan neketsua da, baina oroitzapen onak uzten ditu".

MAITE ODRIA ▶

azpeitiarra



"Bernedora joango naiz uztailaren 1etik 15era. Aurtengoa hirugarren urtea da. Umeekin lortzen

dudan harremana gustukoa dut; neu ere beste haur bat bihurtzen naiz".

MAITE IRIARTE ▶

azpeitiarra



"Udaleku irekietan egonda nago, baina aurtan Abagarrera joango naiz. Asko gustatzen zait

umeein harremanetan egotea. Aurtan gazteekin egongo naiz".

Hau ▶



Miren Larrea

Otsoa datorrela!

Duela bi hilabete ekonomia ondo doakigula oraingoan, aipatzen nuen. Izan ere, azken urteetan asko dirabizi maila mantentzeko al-daketa sakonak egin behar ditugula diotenak. Bizirauteko bidea, berrikuntza barneratu eta teknologia altuko sektoreak indartzea omen da. Uste dut ahots horiei ipuineko artzainarena gertatzen ari zaiela: behin eta berriz esan digute otsoa badatorrela, baina orain artekoetan etorri ez denez, gu lasai (lasaiegi, agian?). Dena den, begira dezagun gurera etorriko balitz zer aurkituko lukeen.

Berrikuntza gaitasuna neurtzeko, I+G (ikerketa eta garapena) egiten duten enpresa kopurua begiratzan da. Azpeitian enpresen %1,2ak omen ditu era horretako jarduerak. Datua gure inguruan puntakoak diren udalerri industrialena baino apalagoa da (Arrasaten, %2,4), baina Gipuzkoako batez besteko %0,7aren goitik gaude. Ahalegin horren emaitza, ordea, besteak beste, patente kopuruaren bidez neurtzen da. Urtean mila biztanleko 0,2 patenterekin bai Arrasateko 2,5etik eta bai Gipuzkoako 0,6tik urrun geratzen gara. Badirudi, beraz, ahalegintzen garela, baina emaitza gutxiarekin.

Teknologia mailari dagokionez ere, berri onik ez. Azpeitiko enpresen %0,2 besterik ez daude teknologia maila altuko enpresa bezala sailkatzen diren sektoreetan. Gipuzkoan, batez beste, %0,4. Teknologia ertain eta altuko sektoreena ere izan zitekeen gure apustua, baina ezta hori ere, gure enpresen %11 besterik ez baitaude talde honetan, Elgoibarrek, adibidez, %39 eta Azkoitiak %21 dituztenean.

Artzainak bere lagunei adarra jotzeagatik iragartzen zuen otsoaren etorrera. Nahiago nuke guri ere adarra jotzen ariko balitzaizkigu, baina...

Apunteak ▶

GORA.

Mireia Epelde txirrindulari azpeitiarra Tourrean izan da Bizkaia-Panda SW-Durango taldearekin. Ondo ibili da lasterketan, zazpigarren bukatu du gazteetan. Orain Giroan hartuko duela parte esan diote taldeko ordezkariak. Lehenengo urtea du profesional mailan.

BEHERA.

'Karakoleko' igogailuan txistua botatzen dute umek botoietan. Lerdea dariola egoten dira askotan, eta ez da oso atsegina han ibili behar duenarentzat. Umekontuak eta umekeriak direla zurituko du zenbaitek, baina gizatasuna eta errespetua erakusteko adinik ez dago.



'Karakoleko' igogailua. LEIRE LARRAÑAGA

ZALANTZA.

283 bazkide zituen Realak 2006ko abenduan Azpeitian. Orduetik hona egoera asko aldatu da; izan ere, Realak Espainiako Bigarren A Mailan da. Eutsiko al diote bazkidetzari azpeitiar haiek?

Ba al dakizu... ▶

...ekainaren 16an
Azpeitian alkate
Errazkin aukeratu
eta ia ordubetera
euskal irrati batek
EAJk Alkatetzari eutsi
ziola esan zuela?

Zer dio? ▶ Aitor Lazkano (Ikasberri Rallysprinteko antolatzailea)

Rallysprinta dela-eta...

▶ **Aitor Lazkano Ikasberri Rallysprinteko antolatzaileetako batek Uztarriaren aurreko zenbakian Koldo Aldalurrek argitaratutako iritziari erantzun nahi izan dio ondorengo idatziaren bitartez.**

Nik, Koldo jaunari galdera batzuk egin nahi nizkioke:

–Zein dira Ikastolaren oinarrian dauden balore horiek?

–Lasterketak ingurumenari zer kalte egiten dion nola neurtu duzu?

–Osasun mentalaren analisia egiteko zer ikasketa dituzu?

Ni ikasle ohia naiz, Ikastolako gurasoa, Rallysprinteko antolatzaileetako bat, Rallysprinteko parte-har-

tzailea, txirrindularia, eta, zuk diozun bezala, kirolaria. Nik egin egiten dut kirola eta ez jardun, zuk diozun bezala, kirola egiteko delako.

Zure esatari lana zuk zeuk jartzen duzu zalantzan; izan ere, uste dut zu kirolek bizi zarela hein handi batean, eta ez kirola egiteko.

Besterik gabe, ulertuko duzulakoan, Azpeitiko kotxe lasterketazale, mendizale, sokamuturzale eta zezenzale baten partetik. Nire gurasoak pilotazaleak dira eta ez dira azkoitiarrak, nahiz eta Azkoitia pilotarien herria izan.

Nik uste dut, Koldo, gauzak bere tokitik kanpo atera dituzula eta enbido jotzeko aitzakia erabili duzula.

Zuri gertatutako gauza pertsonal batekin Ikastolako Rallysprinteko antolakuntza dudan jartzea ez zait zilegi iruditzen.

Zubi eraikitzaileak

Aurreko aldizkarian, *Lider izan nahi duenak... zuba izan behar du* Galesko atsoitza oinarri hartuta, hauteskunde ondoren herri eraikundeetako ardura bere gain hartu dutenen eginkizuna aipatzen zuen Maria Jesus Aranburuk. Egia esan behar bada, irudi adierazgarria gertatu zitzaidan.

Irakurri bezain pronto gogoratu nuen duela urte batzuk irakurri nuen *Constructores de puentes* izeneko artikulua. Idazleak zioen hori zela munduan eskaintzen diren tituluen artean gehien gustatzen zitzaiona: zubi eraikitzailea (*pontífice*).

Borondate oneko edozein pertsona zubi eraikitzaile izan badaiteke ere, ez da, ez, erraza zubi eraikitzaile izatea. Eta zailagoa, berriz, zubi izatea. Gogorra da, sakrifizio handia eskatzen du...

Zubia, izan ere, bi hertzak baino gehiago izan arren, bi hertzetan sendo oinarritu behar da. Bi ertzeekin lotuta bizi behar du. Zubi izan nahi duenak, beraz, bere askatasun pertsonala mugatua ezagutuko du. Uko egin beharko dio, neurri batean behintzat, bere buruari.

Zubiak, beste aldetik, bertatik igarotzen direnen karga jasan behar du. Sendoa behar du. Zubi ederra atsegina bada ere gure begietarako, zubiak sendoa behar du, erabilgarria, zerbitzu on bat eskaini, eta segurtasuna eta konfiantza ematen duena.

Eta hori, esker onik itxaron gabe. Zubiak, nagusiki, ertz batetik bestera igarotzeko erabiltzen dira. Zubi lana egiten duenak ere, bitartekaritza zerbitzua eskaini ondoren, amaitu du bere eginkizuna.

Eginkizun garrantzitsua da zubi izatea: pertsonen artean, iritzi eta be-laubaldien arteko zubi izatea. Ezingo ginatke bizi munduan, izan ere, zanga sortzaileak zubi eraikitzaileak baino gehiago balira.

◀ Eta beste



Kepa Susperregi



GOENKALE 190890

Eutsiko pixkat
andere?eske gero
nei tokatzen zait

Bai, noski, gazte

Txiba, buenpie,
ta...

KOLKO

Barrabil kontuak



Kepa Urbietak

Igor, maitea! Futbolean urte batzuk jokatu duenak bazakik zer sentitzen den baloiak 'parteetan' jotzean. Gizonezkoa izan edo emakumezkoa izan. Nik berandu jakin nian zein zen gizonezkoentzat min hura apaltzeko erremedioa: mutilentzako, lurrean etzan eta behatza bi barrabilen artean sartzea omen duk. Hil honetako gertakariak batzuei ederki estutuko zizkietean barrabilak, baina erremedio horrek balioko ote dik kasu hauetan:

1. Realak maila galdu duenean. Paradoxikoa duk zentzu batean. Futbolean jokatu ez baina baloiak bete-betea jotzen dik barrabiletan. Pena handiagoa hartuko nuela imajinatu izan

nian beti, baina ez. Real bera jaisteak baino alferrik galdutako igande arratsalde guztiek min handiagoa ematen diatela-koan nagok. Denboraldi eskasa egin dik gure mikelteen taldeak.

2. Alkatetza galtzean. Real Bigarren Mailan ezagutuko nuenik ez nian asko espero, baina Iñaki Errazkin alkate ikusiko nuenik ez zitzaidan burutik pasatu ere egin. Julian Eizmendik ere oso-osorik jaso dik kolpea, edo "bonba", beraiek deitu bezala. Behatza baino zerbait gehiago ere beharko dik hartutakoa baretzeko.

3. Errazkin aipatu dudanez, horren barrabilak ederki hazita egongo dituk. Gogoratzen Az-

peitiko poesia emanaldietan teknikari gisa jarduten zuen hartaz? Bai, berbera: Iñaki Errazkin. Orain alkate. Orduan bezala, gertuko eta umil jarraituko ahal dik hemendik aurrera ere. Horrek beste erremedio-
ren bat beharko dik husteko...

4. Eta politikaz ari naizela, ezin aipatu gabe utzi EAKo bi zinegotziak. Horiei ez zakiat zer diagnostikatu. Edo handiak ditzitek egin dutena egiteko, edo zeharo kuzkurtuta ditzitek egin dutena ikusita. Gauza bat zagok garbi: EAJrekin barrabiletaraino egon behar zutela.

Politika eta futbola ez zaudek horren urruti. Behar dena jartzea duk bietan egin beharrekoa. Gogoia, alegia.

Ezin hustu



Igor Aranbarri

Filosofo irteeran habil aspaldi honetan, moteil: politika, futbola eta barrabilak pare pare jarri eta konparatzea...; hori duk poesia, hori! Ez nian behatzaren teknika ezagutzen; agian, beharko.

Maila altuko lurrikara izan duk Azpeitia nahiz Gipuzkoako leku askotan... "Ez nian berehala pentsatuko!", hori esango ditek askok! "Akabo, bukatu duk bizitzaren zentzua!", beste zenbaitek.

Ni, noraezean nabilek, mozkortuta bezala. Terapia pertsonala galdu diat. Alde batetik, igande arratsaldeetako plan tristeia, tristeagoa bihurtuko zaidak, akaso. Bai, aitoritzen diat, ez nauk futbolzale porro-

katua, baina igande arratsaldeetan buruak ez ziguk ideia onik ematen. Ondorioz, igandero sufrimendua Real izan diagu. Builabatzuk atera, entrenatzailer irteerak eginez argudio landuekin partida aztertu, "zer egingo diagu ba..." esan, pintxo batekin barne tristura estali eta, "bihar astelehena!..." botata, etxera. Sufritu egiten genian, baina baita barrenak oihu bidez lasaitu ere.

Beste terapia modua ere galdu diagu, dirudienek. "Bonba" bat izan omen duk Azpeitiko Udalean gertatu dena, bonba demokratikoa. Menu politikoa aldatu duk Azpeitian. 30 urtean baina-patatak jaten egon eta orain, bainak eltzetik

kanpo geratu eta porru-patat zaudek pil-pilean azenario ukitu batekin. Hori bai, patata gutxiko uza izan duk, eta, azenario kolorea emateko lain.

Baina, harira: kontzientzia dudana garaitik udaletzeko gestioa handik edo hemendik kritikatu eta gaitzesteko aukera izan diat... eta orain? Nirekin batera oihuka zeudenak udaletxean zeudek...; akabo kexak? Baditek nahiko lan Iñaki Errazkinek eta konpainiak. Gainera, gauzak ondo egingo ditzitek, akaso.

Beraz, Realik gabe, eta baina-patatarik gabe... nola hustuko ditiat nire egonezinak? Eskerrak barrabil usteko neu nahikoa naizen.



MIKEL AIESTARAN ▶ kazetaria

“Gerra eta krisiekin maleta prest izan behar da irteteko”

▶ Testuak: Maider Zendoia ▶ Argazkiak: Mikel Aiestaran ▶ Infografia: Joxean Apeztegia ('Berria')

Mikel Aiestaran (Beasain, 1975) kazetaria Azpeitian bizi da, baina munduko hamaika txokotan izana da esatari lanetan. Ekialde Hurbileko hainbat krisialdiren berri eman izan du komunikabideetan. Ekainean opor egun batzuk izan zituen eta Azpeitian

aurkitu genuen bere egitekoaz hitz egiteko prest.

Noiztik datorkizu nazioarteko gaiekiko interesa?

Betidanik izan dut bidaiatzeko za-

letasuna eta, kazetari profesiona-
la izanda, bi gauzak lotzea eraba-
ki nuen. Ekialde Hurbilean oso
eroso sentitzen naizela konturatu
nintzen etalanerako aukera polita
izan zitekeela pentsatu nuen.
Gaur egun, *freelance* (neure
kasa) bezala egiten dut lana, Vo-
cento eta EiTB taldeetako komu-
nikabideentzat.

**Zein da *freelance* bezala egin
zenuen lehen irteera?**

Bahamastik irteten eta Tijuana-raino
joan nintzen 2005eko urrian,
baina ez nuen bidaia hartan egin-
dako lanik saldu.



Datua ▶

2

URTEAN BERE KASA. Orain ia hamar urte bukatu zuen Kazetaritza, eta 2005etik bere kasa ari da lanean.



Lanean aritutako herrialdeak

Kazetari gisa ondorengo
herrialdeetan izan da:

Irak. Euskal Herritik 4.119
kilometrora.

Iran. 4.564 kilometrora.

Afganistan. 6.000 kilometrora.

Ipar Korea. 9.456 kilometrora.

Libano. 3.380 kilometrora.

Nola erabaki zenuen Ekialde Hurbilera joatea?

Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) esperientziaren ondoren erabakinuen hara joatea. Krisialdi nuklearra, Irakeko gerra eta Ipar Korea etorri ziren gero. Dena dela, nire gustukoena Iran da. Gaur egun Ekialde Hurbilean dagoen potentziarik garrantzitsuen dela pentsatzen dut. Iran ari da gune hartako politika mugitzen.

Zer metodologia jarraitzen duzu gertakarien aurrean posizionatzeko?

Bertako kazetariak informazio iturri ona dira; egunkarietara eta

irratietara jotzen baduzu, beti aurkitzen duzu zuri gauzak azaltzeko prest dagoen norbait. Zonalde hartan lehenagotik ibilitako gainerako kazetariak ere iturri ona dira. Hala ere, liburuak eta egunkariak irakurtzea beharrezkoa dela uste dut.

Ekialde Hurbila utzi beharko bazenu, munduko zein txokora joango zinateke?

Desastre bat edo krisi politikoa dagoen tokian probatuko nuke. Dena dela, espezializaziorako apustua egin dut. Ekialde Hurbilean mugitzen naiz batik bat. Ondorioz, han ditut kontaktuak.

Ibilbidea

Mikel Aiestaran beasaindarrak Nafarroako Unibertsitatean ikasi zuen Kazetaritza.

Ikasketak bukatu ondoren, *El Faro de Ceuta* egunkarian hasi zen lanean. Handik Bilbora, *El Correo*-ra aldatu zen. Bertan jarri zen harremanetan Vocento komunikabide taldearekin. Handik, *El Diario Vasco* egunkarira pasatu zen eta sei urte igaro zituen. Orain bi urte, erredakzioa utzi eta bere kasa hasteko erabakia hartu zuen. Horretan dihardu.

Irak eta Afganistan, Libano eta Iran baino arriskutsuagoak direla esan izan duzu.

Irak eta Afganistanera lan espezi-fikoa egitera joan behar da. Siria, Libano, Iran eta Turkia, aldiz, bizitzeko tokioak dira. Irak eta Afganistan ez dira seguruak, azken urteotako inbasioek dena hankaz gora utzi dutelako. Haiek Europarekiko eta AEBekiko duten ikuspuntua aldatu egin da. Horregatik ibili behar da kontuz.

Zein gatazka da kontatzeko konplexuena zuretzat?

Afganistango gatazka oso zaila da kontatzeko, errusiarrek egon



Golaneko gaina. Israel eta Siria arteko muga ageri da Aiestaran –hiruretan ezkerrekoa–.




Iran. Bam hiriko lurrikaran izan zen, 2003ko abenduan. ULY MARTIN / EL PAIS



Afganistan. Espainiar soldadu bat hil zutenean bidali zuten hara lanera, 2007ko otsailean.



Ipar Korea. Ipar Korea eta Hego Korearen arteko muga -eskuinekoa- joan den maiatzean.



Lanean. Satellite bidezko telefonoa, ordenagailua... beharrezkoak ditu. Iranen lanean. ➤

» zirenetik beti ibili direlako okupazioaren aurka borrokan. Bestalde, Al Kaeda fenomenoak sortu da eta salazismoa leku guztietara hedatzen ari da. Beraz, etorkizuna beltza ikusten dut islamaren barruan. Jende horrekiko erabakiren bat hartzen ez badute, jai dute, segituan hartuko dute haiek boterea. Era berean, azkeneko urteotan Mendebaldeko irudia asko usteldu da; hango gobernuek erakutsitako jarrera lotsagarria izan da. Adibidez, Espainiak Iraketik tropak ateratzeko erabakia hartu ondoren, Afganistanera eta Libanora bikoiztuta bidaltzea nola uler daiteke?


Eguneroko eginbeharra nola antolatzen duzu?

Horrelako gune batean ezin da inoiz ere plan bat egin. Adibidez, Saddam Hussein hil zuten egunean ni Donostian nengoen pasaporteak ateratzen eta deitu egin zidaten. Egun bertan hegazkina hartu eta hara joan nintzen. Gerra eta krisiekin maleta prest izan behar da irteteko. Beti eramaten ditut soinean ordenadore portatil txiki bat, satelite bidezko telefonoa, argazki kamera eta bideo kamera.

Sariak eta aitortpenak izan dituzu...

Ustekabeak izan dira. Nik pentsatzen nuen, oro har, sariak putxera-zoak izaten zirela. Aurtan, Espainia mailan oso garrantzitsua den sari bat eskuratzeko izendatu naute, Cirilo saria, bederatzi kazetarirekin batera. 31 urte ditut eta hori lortzea oso garrantzitsua izan da niretzat. Azkenean, Rosa Maria Calafek irabazi du Cirilo saria.

Nola moldatzen zara hizkuntza, kultura eta historia des-



Mikel Aiestaran Azpeitian, Zelai Luzeko eserleku batean, ekainean. M. ZENDOIA

“Afganistango gatazka kontatzeko zaila da; errusiarrek egon zirenetik borrokatu dute okupazioaren aurka”

“Mendebaldeko irudia asko usteldu da; hango gobernuek erakutsitako jarrera lotsagarria da”

berdineko herrialdeetan lan egiteko?

Taxia hartzeko arazorik ez dut izaten, baina beti behar izaten dut itzultzaile bat lanerako. Afganistanen hiru itzultzaileekin lan egiten dut lekuaren arabera. Libanon, berriz, kristauekin lan egiteko itzultzaile bat daukat, Hezbolarekin harremanetan jartzeko beste bat eta suniekin aritzeko beste bat. Itzultzaile xiita bat sekula ez da joango zurekin gune kristauko etxebizitza batera; barne arauak ikasi arte nahastuta ibiltzen zara.

Zein da hango eta hemengo errealtateen arteko desberdintasunik handiena?

Euskal Herriko gatazka ulertzea zaila egiten bazaigu, imajinatu Libanokoa! Libanon hemezortzi komunitate bizi dira Nafarroako Erkidegoa bezalako gune batean, elkar ezin ikusita. Tentsio handiko gunea da eta hori eguneroko bizitzan nabari da. Politikariei dago-kionez, Ekialde Hurbilean goitik beherako liderrak daude. Momentu honetan han dagoen figurarik garrantzitsuenak Hassan Nasralla Hezbolako burua da. Hark hitz egiten duenean, Ekialde Hurbila gelditu egiten da.; lider politiko, erlijioso eta militarra da.

Bitxikeriak ere biziko zenituen urte hauetan, ezta?

Portzelanak saltzen dituen beasaindar batekin egin nuen topo Teheranen (Iran). Horrelako aurkikuntzek poza ematen dizute, han zaudenean deskonektatzea beharrezkoa delako.

Eguneroko lana egiteko traba asko jartzen al dizkizute?

Iranen, adibidez, nik egindako lan guztiak bidali egin behar izaten dizkiet Gobernuako ordezkariari argitaratu aurretik. Gainera, nire bloga, satelite bidezko telefonoa eta sakeleko telefonoa ere kontrolpean dituzte. Horrelako tokietan kontrola zorrotza da. Dena dela, errespetuan oinarritutako kontrola da; gezurrik ez baduzu kontatzen, ez dira gehiegi sartzen zure lanean.

Etorkizunean, Azpeitian gelditzeko asmorik ba al duzu?

Nire etxea Azpeitian dago, baina kanpoan egiten dut lana. Oso herri tradizionala iruditzen zait Azpeitia, baina bizitzeko toki ona eta lasaia da. ◀

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain Larrialdiak:
943 15 16 40

ALBAITARI KLINIKA

AZKOITIA

ERLOJU KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

gero eta txinparta

GUTXIAGO

San Joan bezperako sua egitea ohitura bada ere, gero eta gutxiago ikusten dira Azpeitiko auzoetan. Hala ere, oraindik badira aurreko egunetan biltze lanetan ibiltzen diren gaztetxoak herrian



TRAPERO KUADRILA.

Etxebeltz baserriaren ondoan egiten den sua prestatzen aurkitu genuen argazkiko gaztetxo kuadrila. Ekainaren 23ko ekitaldia txukun ateratzeko, gogor lan egin behar izaten dute aurreko egunetan.

»



EZKUTALEKU BILA.

San Joan suko zenbait kartoi eta altzari erreta agertu zirenean, gainerako trasteak inguruetako ezkutalekuetan gordetzea erabaki zuten gaztetxoek.

BAKOITZA BERE LEKUAN.

Hiru ezkutalekutan antolatu zituzten trasteak: egurrak alde batean, somierrak eta koltxoak bestean, kartoiak haratago. Azkeneko egunean elkartu zituzten guztiak tontor bakarrean.

ETSAIEN MENDEKUA.

Auzoen arteko lehiakortasunarenugarak aurretik pizten dira. Bezperatan ezuste ugari izaten dute, trasterik preziatuenak su emanda agertzen direlako.




TALDE LANA.

Bolumen handiko trasteak garraiatzeko taldean lan egitea beharrezkoa da, bakoitzak ahal duen neurrian: batzuek indarra erabiliz, besteak abilezia, irudimena ere bai zenbaitek...



ERRE AURRETIK, BANAKETA.

Bildutako traste zaharren artean, ustekabe onak ere izaten dira. Erosketetarako karroan aurkitutako bideo zintak etxera nork eraman eztabaidatu behar orduan.



SANJOANETAKO TXINPARTAK.

Ekainaren 23an eman zieten su bildutako traste zaharrei. Ikasturte bukaerako apunteek ere sugarren artean amaitu zuten, guztiz kiskalita.



BILDUTAKOA TONTORRERA.

Jasotako traste zaharrak tontor bakar batean egituratu zituzten azken egunean. Ondo egin beharreko lana da, tontor hura lehiatuko baita beste auzoetako sugarrekin.



Udal alderdiekin berriro bilerak Uztarriak ▶

Izan ziren udal hauteskundeak maiatzean, alderdietako ordezkariak hartu zituzten karguak udaletxean ekainean, eta Uztarria Kultur Koordinakunderrirako ekingo dio haiekin biltzeari Euskara, Kultura eta Komunikazioa arloez (horiek dira Uztarriaren hiru arloak sorreratik, 1998tik).

Urte hauetan guztietan herrian egin denaren balorazioaz, sortu diren arazoez, dauden gabeziez, funtzionamenduaz... modu lasaian hitz egiteko, aurreko legealdiaren ekin zioten Uztarriak eta alderdiek bilerei. Hain zuzen, EAJ, Harea eta EA aritu ziren udal alderdien artean, eta Uztarriak hitz egiten eta

adosten zenaz PSE-EE eta PP informatuta eduki zituen. Aralar ere bai; orain, gainera, Udalean ordezkariak duenez, bilera horietako kide izatea eskaini dio Uztarriari.

Komunikabideak, kultur azpiegiturak, euskara eta kultur mahaia, euskara planak... gai garrantzitsu asko daude adosteko.



KULTUR AGENDA ▶

Hilabetea.

Uztaila.

Banaketa.

Asteburu honetan.

Non. Herriko tabernetan eta toki publikoetan.

Tirada. Mila ale.

Argitaratzailea.

Uztarria Kultur Koordinakundea.

hilaren 7an bukatuko da POURRAKO IZEN-EMATEA

Zazpigarren urtez jarraian Uztarriak Frantziako Tourreko Pourra antolatu du. Tourra, uztailaren 7a eta 29a artean izango da. Pourrean izena emateko epea 7an bertan itxiko da, 14:00etan (deitu Uztarriari: 943 15 03 58).

POURREKO SARIAK ▶

- 1. postua.** Jasotako diruaren %40.
- 2. postua.** Jasotako diruaren %20.
- 3. postua.** Jasotako diruaren %10. (Gainerako %30, Uztarriari laguntzeko izango da).



Argazkian, aurreko urteko irabazleak, Uztarriaren txosnan. HITZA

Sari gehiago.

- ▶ Kiruri jatetxean bi lagunentzako afaria.
- ▶ Mireia Epelde txirrindulariaren elastikoa.
- ▶ Festetan tiobiboetan ibiltzeko 30 euroko balea (Udalaren laguntzari esker).
- ▶ Uztarriaren saria.
- ▶ ...

Sailkapenak uztarria.com-en egunero.

Pourra eta Tourreko sailkapenak egunero argitaratuko dira uztarria.com-en. Etxe-Zuri, Amaia, Erreka, Iraurgi SB, Ciclos Beni eta Aitzaki Kirolak-en ostiralero utziko ditu Uztarriak sailkapenak, jendeak ikusteko.

Sari banaketa. Saninazio bezperan, 20:00etan, Uztarriaren txosnan. ◀



1.055

bazkide gara dagoeneko Uztarrian; eskerrik asko denei

egin zaitez bazkide UZTARRIAN

Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

- ▶ Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
- ▶ uztarria@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): **943 15 03 58** ▶ www.uztarria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

HELBIDEA ▶

TELEFONOA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez*) ▶

NAN edo EHNA ▶

HERRIA ▶

E-MAILA ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 27 euro.

Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarria herri aldizkaria.
- ▶ Biografiak: *Joxe Takolo* eta *Imanol Elias*.
- ▶ Euskarazko prentsa eta *Azpeitia* liburua.
- ▶ *Loiolarik ez balitz* liburua.
- ▶ *Otsobeltz* liburua.
- ▶ *Urrestillako musika taldeak* liburua.
- ▶ *Azpeitiarrak Espainiako Gerran* liburua.
- ▶ Erdi prezioan: *Mendi gida* eta *Azpeitiko efemerideak*.

HARPIDEDUNAK ▶

Ez du diruz laguntzen.

Jasoko duzu.

- ▶ Uztarria herri aldizkaria.

Blogak ▶ www.uztarria.com/blogak/pertsonak

Esan beharreko hitzak



Zenbait kasu edo egoeren aurrean oso zaila izaten da hitz batzuekin erantzun bat ematea. Adibide bat jarriko dizuet. Ez al zai-zue inoiz gertatu azkenaldian topo egin gabeko norbaitekin ka-lean geratu eta berak galdetzea: "Eta, zer moduz zaude ba?". Eta zuk, inozo aurpegia jarri eta, bola-da txarra pasatzen ari zarela onar-

tu beharrean, edo egun petrala duzula erantzuteko puntuan zaudenean, betiko "ondo" lehor eta txepelarekin erantzuten amaitzea.

Zergatik kostatzen zaigu horrenbeste batzuetan pentsatzen ari garen hori esatea?

Zergatik itxurak mantendu nahi hori?

Errealitatea ez dena erakutsi behar hori?

Eman diguten edukazioaren ondorioa da? Ala bakoitzak dugun izaeraren ordaina?

Beste adibide bat. Festa batzuetan gaude eta lagunekin parrandan gabiltza. Goizeko bostak dira eta nahikoa alkohol edanda zaude dagoeneko. Ez duzu gehiago edateko gogorik. Baina aurreko hamar eurokoen kaxa amaitu da eta lagunek beste hamarrek bat egitea proposatzen dute. Baina, nahikoa duzula esan eta paso egin beharrean, "ez" esatea nahikoa duzunean, beste hamar euro botatzen amaitzen duzu azkenean. Ordurako nazka

ematen hasi den zerbezari bi trago eman eta barran uzten duzu beste guztia. Ez al zai-zue inoiz gertatu? Ez al zai-zue inoiz tonto aurpegia geratu horrelako zerbait egin eta gero?

Batzuetan mihia zapaldu eta isilik geratzea komenigarria izatenda, baina benetan pentsatzen ari garena esateko ausardia handiagoa izan beharko genuke sarritan. Une edo egoera batzuen aurrean zaila bada ere.

▶ Iñigo Ibarguren

Inkesta ▶

Udarako ordutegia

ba al daukazue zuen lantokian?

%21,95 Bai

%78,05 Ez

Orain dagoen galdera. Sanferminetara nora joaten zara? Iruñera? Lesakara?...



Argazki blogak ▶ www.uztarria.com/blogak/argazkiak

Urtegian Madisoneko zubia?



—Izan al haiz pantanoan? Ikusi al dun bide berria?

—Azkena neguan. Egiten ari hitunan.

—Oso polita jarri dituen. Ni lasterka joaten naun, eta bide berri horretan ez

zagon aldaparik. Bankoak, hesiak bide ertzean eta Madisoneko zubi bat ere jarri dituen.

- Madisoneko zubi bat?

- Bai, egurrezko zubi polit bat. Aterpe eta guzti.

- Ikusi behar dinat hori!

▶ Leire Larrañaga

Bloga nahi?

Uztarria.com-en zuk ere blogari izan nahi? Uztarriara idatzi edo deitu besterik ez duzu egin behar.

BLOGARI BERRIAK ▶

Ramon Etxezarreta. Etxezarretak berak egin dio eskaera uztarria.com.-i, eta baiezkoa eman diogu, nolaez, beste edozeini bezala. Parte-hartzea sustatu nahi dugulako. Artikuluak idatziko ditu. Politikan urteak egin ditu Etxezarretak, eta Donostiako Udalaren Kultura ordezkari izendatu berri dute. Idaztea gustukoa du.

Xanti Rodriguez. Rodriguez, berriz, uztarria.com-ek egin dio eskaintza, eta onartu egin du. Uztarria aldizkarian kolaboratzen hasi berri da komikia eginez. ◀

Datua ▶

15.000

ORRI 18-AN.

Udaleko kargu-hartzean gertatutakoak (EAE-ANVkoa alkate) hautsak harrotu zituen. Uztarria.com-en antzeman zen, ekainaren 18an 15.000 mila orrialde erakutsi genituelako 3.000 bisitetan.

TANTOZ

tanto lanean

Ilunpe Pilota Elkartek 25 urte daramatza esku pilota sustatzen Azpeitian. Gipuzkoako Herriarteko Txapelketako bigarren postuarekin ospatu du

► Testuak: Maider Zendoia ► Argazkiak: Ane Aranburu eta Maider Zendoia

Azpeitiko Ilunpe Pilota Elkartek 1982. urte hasieran eman zituen lehen pausoak. “Lagunartean gastronomia-elkartea zabaltzea pentsatu genuen; eta, horretarako, elkartearen jardura zehazteko eskatzen zuen legeak”, dio Jesus Ruiz Argandoña elkartearen kideak. “Taldean eztabaidatu ondoren, esku pilota aukeratzea adostu genuen”. Beraz, horrelaxe abiatu zen Azpeitian esku pilota sustatzea helburu izan duen elkartearen ibilbidea. Aurten 25 urte bete ditu, eta Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan lortutako bigarren postuarekin ospatu dute urteurrena.

1981eko abenduaren 26an eratu zuten gastronomia-elkartea, eta hilabete gutxiren buruan ekin zioten pilota munduko egitasmoak antolatzeari. “Garai hartan Frontoi Txiki botata zegoen eta, ondorioz, Betharramdarretako pilotalekuan antolatu genituen lehen txapelketak”, dio Ruiz Argandoña.

“Herri mailan esku pilota sustatzeko, lagunartean jokatzeko hasia bururatu zitzaigun. Horrela, veteranoen arteko txapelketa antolatu genuen, eta arakasta lortu zuen; 20 bikotek hartu zuten parte”. Jendearen erantzuna ikusita, beste bi txapelketa antolatu

zituzten Errezilen. “Jende askok hartu zuen parte horietan, oso giro ona sortzen baitzen parte-hartzaileen artean”.

Frontoi Txiki

Ilunpe Pilota Elkarteko ibilbidea Frontoi Txiki lotuta dago. Santiago kalean kokatutako pilotalekua Silvestre Otamendi alkate zela (1972-1977) bota zuten. Bederatzi urtean ez zen han frontoirik egon, baina eraberrituta inauguratu zuten 1986ko uztailaren 25ean.



Frontoi Txiki.

► **ZALETASUNA.** Beraz, lagunarteko zaletasuna gorpuztutako egitasmo bihurtu zen denbora gutxian. Ilunpeko kideak eskola sortu eta herriko gazteen artean hasi ziren esku pilota sustatzen. “Behin zerbaitetan hasita, gauzak serio egitea nahi izaten dut”, esaten du Ruiz Argandoña. Ordura arte, Cesar Valverde eta Patxi Azkargorta ziren esku pilota munduan ziharduten lagunak herrian.

Haien lekukoa ondorengoei hartu zuten Ilunpen: Benantxio Karrera, Andoni Egiguren, Juan Mari Egiguren, Javier Otaegi, Antton Martinez, Miguel Zendoia eta Jesus Ruiz Argandoña. Azkargortak haiekin lanean jarraitzea erabaki zuen. Valverde 1986ko maiatzaren 2an hil zen; Ilunpekoek urtero antolatzen dute honen oroimeneko txapelketa, pilota munduan lan ugari egindako gizona zelako.

Valverde hil eta denbora gutxira eraiki zuten Frontoi Txiki berria; 1986ko uztailaren 25ean. “Silvestre Otamendi alkate zela (1972-1977), Frontoi Txiki botatzeko erabakia hartu zuten eta bederatzi urte egon ginen frontoirik gabe”, dio Antton Martinez Ilunpeko kideak. “Frontoi Txikiko harriak zenbatuta kendu zituzten Enparan Dorretxe azpian jartzeko”. Patxi Azkargortak gogora-

tzen duenez, “hala egiteko asmoa zuten, baina azkenean harri haiek ez zuten balio izan. Etxe eraikitzaile batek esan zuen kanpoan egondako harriak zirela eta ez zeudela baldintza onean”.

Ilunperen ibilbideari estu lotutako pilotalekua da Frontoi Txiki. “Oso pilotaleku berezia da”, uste du Azkargortak, nostalgia puntu batekin. “Lehenengo frontoiko ezker pareta etxebizitza zen eta, horregatik, jokalariek pilota atzera bidaltzen dutenean ‘kalera!’ esaten dute ikusle azpeitiarrek; gainerako herrietako frontoietan, berriz, ‘atzera!’ esaten dute”.

► **PASADIZOAK.** Askorako ematen dute 25 urtek, eta Ilunpekoek ere pasadizo ugari bizi izan dute urteotan. 1984ko Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan Eskoriatzaren kontra jokatu zuten. Azpeitiak galdu egin zuen. Eskoriatzarrek profesionalizandako jokalaria zuten taldean eta, arauen arabera, hark urtebete pasa egon behar zuen profesional mailan jokatu gabe. Hala ez zela ohartu ziren azpeitiarrek; beraz, partida bukatzean parte sartu zuten Ilunpekoek. Salaketa egia zela frogatu zuen epaileak eta garaipena azpeitiarrentzat izan zen.

2006ko Herriartekoan, berriz, azpeitiarrek adinarengatik lortu



Pilotariak Benantxio Karrera (goian ezkerrean) eta Jesus Ruiz Argandoña (goian eskuinean) entrenatzaileekin, ekainaren 21 ean.



Andoni Eiguren pilota txapelketako finalerako sarrerak saltzen herrian.



Pilotariak autobusera sartzen plazan, goizez.



Atano III. frontoiko aldageletan takoak jartzen.



Azpeitiar zaletuak giro ona jartzen saiatu ziren finalean.



Errazkin eta Esnaola –erdian– udal ordezkariak.



Ilunpe elkarteko kideak urduri nagusien partidan.

Finala

Azpeitiko pilotariak maila handia erakutsi dute aurtengo Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketan. Ekainaren 23an jokatu zuten finala Arrasatek eta biek, Donostian, Atano III. frontoian. Azpeitiarrek faborito irten zuten baina, azkenean, arrasatearrak gailendu ziren, 2-1eko emaitzarekin. Daniel Murgiondo eta Andoni Aizpuru azpeitiar kadeteek 14-22 galdu zuten. Ondoren, Joanes Otamendi eta Mikel Ilegi gazteek aise irabazi zuten: 22-3. Nagusiek jokaturako azken partida emozio handikoa izan zen. Azken tantoan erabaki zen txapelketa; Jurgi Larrañaga eta Josu Uzkudunek 21-22 galdu zuten.



Mikel Ilegi atzelaria –ezkerrekoa– gazteen partidan.



Azpeitiar bat bozgorailuarekin herrikoak animatzen.



Tanto erabakigarria; 21-21 eta txapelajokoa...



Azkenean, Arrasate txapeldun!

» zuten sailkatzea Bergararen aurka jokaturako lehian. Izan ere, berdinketa kasuetan, gazteenek irabazten dute.

Patxi Azkargorta Ilunpeko kide beteranoak gogoan du Paulino Uzkudun Errezilgo boxeolari eza-guna nola etorri ohi zen Frontoi Txikira partidak ikustera. "Udako txapelketako epaile izatea gustuko zuen", gogoratzen du Azkargortak. "Garai hartan hiru epaile izaten ziren partidetan eta Uzkudun atzeko epailea izaten zen. Nik banekien ez zuela ondo ikusten eta, horregatik, mutiko bat bilatzen nuen haren atzean jartzeko. Pasa zenean mutikoak altxatzen zuen eskua eta, ondoren, Uzkudunek".

► **PILOTA ESKOLA.** Elkartetik pasatutako haurrak asko izan dira 25 urteotan. "Normalean, urtean ehunen bat haur izaten ditugu gure eskolan; urte batzuetan gehiago, besteetan gutxiago", dio Benantxio Karrera elkarteko entrenatzaileak. Arratsaldero entrenatzen dira Frontoi Txikin, eta larunbat goizetan ere hantxe aritzen dira. Benantxio Karrera bera, Ramon Beobide eta Jesus Ruiz Argandoña ibiltzen dira entrena-tzaile lanetan.

Ruiz Argandoñaren iritziz, "Ilunpeko harrobitik irten duten pilotari ezagunenak Kepa Peñagarikano eta Iban Otaegi Beixama dira". Kiroleko beste alor batean zere-

sana eman duten beste bi azpeitiar ere gogoan ditu: Mikel Aranburu eta Mikel Labaka futbolaria. "Oso pilotari politak ziren; Labakak indarreko eskubia zuen eta Aranburu guztiz teknikoa zen, artista". Futbolearen ere onak ziren biak, ordea, eta azkenean futbolarekiko apustua egin zuten.

Etorkizunera begira, elkarteko ordezkarien lekukoa hartuko

«Lagunarteko gastronomia-elkarteko jarduera aukeratu behar genuen eta esku pilota hautatu genuen»

duen jendea topatzea gustatuko litzaieke. Izan ere, Ruiz Argandoñaren ustez, "25 urte, urte asko dira, eta atzetik da-

«Ehun bat haurri erakusten diegu elkarteko eskolan»

JESUS RUIZ ARGANDOÑA ►
Ilunpe Elkarteko kidea

toztenek bultzada ematea beharrezkoa da". Azpeitiko pilotazaleek zabalik dituzte Ilunpe Pilota Elkarteko ateak.



LAU FINAL, TXAPELA BAT.

Azpeitiak Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketa irabazi zuen 2004an. 2-1 gailendu zitzaion Donostian, Atano III. frontoian jokaturako finalean. Guztira, Gipuzkoako herriarteko lau final jokatu dituzte azpeitiarrek: Azkoitiaren aurka galdu egin zuten 1995ean (3-0) eta 1996an (2-1), Hernaniren aurka irabazi egin zuten 2004an (2-1), eta Arrasateren kontra galdu egin du aurtan (2-1).

Amenabar
D E N D A

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

PILDAIN
Inmobiliaria
www.pildain.com

Harzubia 6, behea
Tl. 943812167 - Fax: 943150774
e-mail: inmobiliaria@pildain.com

LORADENDA

Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua dugu

Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25

Otamendi
Pilotari Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

kutxa

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

PATXI AZKARGORTA ▶ Ilunpe Pilota Elkarteko kidea

“**Gustura hartu** nuen Ilunpekoen lekukoa”

Patxi Azkargorta (Bergara, 1926) urteak daramatza pilota sustatzeko lanean Azpeitian. Hasiera batean, Cesar Valverde izan zuen bidelagun eta, gaur egun, Ilunpe elkartekoekin dihardu pilotari gazteekin.

Noiz murgildu zinen pilota munduan?

Ni izatez bergaratarra naiz, baina 1950eko gabonetan etorri nintzen Azpeitira bizitzera. Betidanik izan naiz pilotazalea eta, Azpeitira etorri nintzenean, Frontoi Txiki ondoan jarri nintzen bizitzen. Gainera, familiako tindategia ere bertan zabaldu genuen. Beraz, esku pilotari ezin izan diot ihes egin.

Azpeitian pilotarekiko zaletasuna aurkitu al zenuen?

Bai, jai goizetan meza nagusiaren ondoren jokatzeko ziren partidek jende ugari bildu ohi zuten.

Herriarteko txapelketaren sorrera bizi al zenuen?

la berrogei urte dira txapelketa sortu zela, eta hasieratik bizi izan ditut txapelketaren nondik norakoak gertutik.

Cesar Valverdek eta biok ibiltzen al zineten erakusten?

Igande goizetan kuadrila arteko

partidak jokatzera joaten ginen Errezilera eta Aratz-Errekara.

Pozik hartu al zenuen Ilunpe elkartearen lekukoa?

Gustura, jakina! Izan ere, orduan guk ezin genuen dena egin. Nire afizioa bizitza guztian horixe izan da: pilota. Gero, 'golfo' horiekin elkartu nintzen eta gaur arte!

Zenbat urte daramatzazu esku pilotari lotuta?

60 urte pasa; orain 81 urte ditut eta 18 bat nituenetik nabil pilotan sartuta. Mutikoak ginela, sarri joaten ginen frontoira Bergaran. Igandeko partidako programak ere banatzen nituen herriko taberna eta dendetan.

Gainerako modalitateak atsegin al dituzu?

Egia esan, betidanik esku pilotari lotuta egon naiz, baina Frontoi Txiki itxita egon zen bederatzi urteetan Gipuzkoako Pilota Federazioak Izarraitz pilotalekuko kontuetan laguntzeko eskatu zigun.

Zu beti pilotan, eta semeak futbolarera...

Hala da. Dena den, Iñaki eta Xabier pilota munduan ibili ziren, baina futbolarako bidea hartu zuten azkenean. ◀



Patxi Azkargorta, Ilunpek Frontoi Txikian duen bulegoan, ezkerreko hatz txikia nola duen erakutsiz. “Pilotari eskua” daukala esaten du.

“Herriarteko txapelketa hasi zenetik bizi izan ditut txapelketaren nondik norakoak gertutik”

“Frontoi Txikia itxita egon zenean, Izarraitz pilotalekuko kontuetan laguntzeko eskatu zidaten”

Koh Tao 

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3
Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 - Fax: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

KIRURI

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

argi jokatu
zure publizitatearekin



uztarria

Azpeitiko
erakuslehi handiena

JOAN...



Gurean ▶

IÑAKI ANTIGUEDAD

▶ hidrogeologia

“Azpeitian jende jatorra dago”

Iñaki Antiguiedad Hidrogeologian katedradunak klima aldaketa hizpide izan zuen ekainaren 5ean Betharram aretoan emandako hitzaldian.

Azpeitian izana al zinen lehenago?

Azkenaldian urtero etortzen naiz, EHUK Ingurumen Fundazioarekin lankidetzan masterra antolatzen duelako Agenda 21eko teknikariak prestatzeko.

Klima aldaketa eragiten duten faktoreei dagokionez, Azpeitia nola ikusten duzu?

Prentsan jarraitu izan dut gaia, baina ez nintzateke plan territorial partzialaren inguruko balorazioa egiteko gai izango.

Zer iritzi duzu azpeitiarrrez?

Azpeitian jende jatorra dago. Nik azpeitiarrak exilioan eta ikasle gisa ezagutu ditut. ◀



Giro onean Gazte Eguna

Ekainaren 2an ospatu zuten Gazte Eguna eta giro ona izan zen herrian. Arratsaldean futbito txapelketako finalak jokatu zituzten plazan (argazkian), eta, ondoren, triki poteo aldarrikatzailea atera zen plazaatik. Gauean, afaria izan zen Azoka plazan, eta Dubling Boys, Friday Crew eta Destroy taldeek kontzertuak eman zituzten Gaztetxean.



Bereziartua Txinara

Ekainaren 6an abiatu zen Josu Bereziartua mendizalea Txinara, Gasherbrum II (8.035 metro) tontorra iparraldeko isurialdetik igotzera. Orain arte inork ez du lortu bide horretatik igotzea.



Udal berria osatuta

Ekainaren 16an izandako kargu-hartze ekitaldian (argazkian), Iñaki Errazkin EAE-ANVko zerrendaburua hautatu zuten alkate. Bere alderdiaren botoak ez ezik, EAKo biak eta EB-Aralarrekoa jaso zituen.

Ustezko sexu erasoa salatzeako bilkura

Azpeitian 14 urteko neska batek ustez jasandako sexu erasoa salatzeako deitutako elkarretaratzean ehun bat lagun bildu ziren ekainaren 5ean herriko plazan. Argazkian, orduko une batean.



EKAINAK 3 ▶ Herri Mailako Amuarrain Arrantza Txapelketa Ander Kerejetak irabazi zuen. **EKAINAK 9** ▶ Gorka Karapetok mutilen elite mailako progako lehen postua lortu zuen Diman (Bizkaia) Rockmaster Eskalada Txapelketan. **EKAINAK 23** ▶ San Joan zuhaitzaren sartzea Urrestillako eliz atarian. Su-ekitaldia plazan, Itsasiren eta Juan de Antxieta Musika Eskolaren partaidetzarekin. Emakumeen II. futbol txapelketaren finala; Oiarzungo taldeak irabazi zuen. **EKAINAK 27** ▶ Arte eta Diseinuko ikasleen erakusketa.

UZTAILAK 7 ▶ Donostiako Orfeoaren emanaldia, 20:00etan Esklabetan. **UZTAILAK 12** ▶ Frantzia, Belgika, Kanada eta Luxenburgoko organisten kontzertua, 13:00etan Loiolako Basilikan. **UZTAILAK 21** ▶ Jubilatuen urteroko irteera Xoxotera, plazatik abiatuta 10:00etan. **UZTAILAK 22** ▶ Pantxoa eta Peio, 22:00etan plazan. **UZTAILAK 26** ▶ Udal Musika Bandaren kontzertua, 21:30ean plaza Txikian. **UZTAILAK 28** ▶ Segabathor eta Elvisavuelo taldeen kontzertua, 22:30ean plazan. **UZTAILAK 30** ▶ Saninazioen hasieran.



ERREKORTARI 2007 TXAPELKETA.

40 euskal, espainiar eta frantziar errekortarik hartuko dute parte txapelketan. Azpeitian izango da finalaurrekoa, eta haietako zortzi sailkatuko dira finalera (Tafallan izango da, Nafarroan).

UZTAILAK 22 ▶ 18:30ean ▶ Azpeitiko zezen-plazan ▶ Servicios Taurinos del Nortek antolatuta

MAITE MAIZ ▶ Itsasi Dantza Taldeko kidea

“Udalbatzako haur denek gotzain izan nahi zuten urte batean”

Itsasi Dantza Taldeak bost bat urte daramatza Umeen Eguneko udalbatza txikiaren osaketa antolatzen; aurten uztailaren 28an izango da. Maite Maiz Itsasiko kidea uztailaren erdialdera hasiko da ekitaldi hori prestatzen. “Oso egun polita izaten da”, dio Maizek. “Haurrek osatutako udalbatza Sanagustinpetik abiatu eta parrokira joaten da, 11:00etako meza entzutera”. Zinegotziak, mikeleteak, gotzaina, alkatea eta honen andrea irudikatzen dituzte udalbatzan ateratzen diren haurrek.

Azpeitiko Udaleko ordezkari txikiek janzkera dotoreak eramaten dituzte soinean: gizonezko zinegotziek trajea eta kapela, emakumezko zinegotziek gona eta blusa, mikeleteek uniformeak eta gotzainak kasula. “Udalbatzako kide batek eramaten duen

bandera sansebastianetako danborradan gastadoreek ateratzen dutena da”. Umeen lehentasunen inguruan ere izaten dira anekdotak. “Urte batean, udalbatzako haur guztiek gotzain izan nahi zuten”.

Zortzi eta hamar urte arteko haurrak ateratzen dira udalbatzan, eta parroki barruan, Itsasiko beste kide batzuek aureskua dantzatzene diete. Handik bueltan, berriz, plazara itzuli eta alkate txikiak idatzi bat irakurri ohi du kioskoan. ◀

UZTAILAK 28 ▶

Umeen Eguna.

▶ 11:00etan udalbatza txikiaren irteera.

▶ Plazatik abiatuta.

▶ Azpeitiko Udalak antolatuta.

...ETORRI



Besterik ▶

AZPEITIA DANTZAN ▶

Saloiko dantzak.

▶ Uztailak 1, igandea.

▶ 20:00etan.

▶ Plazan.



Itsasi Dantza Taldea eta Julian Barrenetxea

Abesbatza.

▶ Uztailak 14, larunbata.

▶ 22:00etan.

▶ Izarraitz pilotalekuan.

Albaniako dantza taldea.

▶ Uztailak 21, larunbata.

▶ 22:00etan.

▶ Plazan.





sahararrak GOGOAN

Uztailaren 21ean Sahararren Eguna ospatuko dute Azpeitian. Hangoek bizi duten egoera zailaren berri emango dute herrian

► Testuak: Maider Zendoia ► Argazkia: Jon Aranguren ek utzita

Zarauzko Saharautz taldeak urteak daramatza Oporrak bakean egitasmoaren barruan Saharako haurrak euskal udalerrietara ekartzen udan, eta uztailaren 21ean Sahararren Eguna ospatuko dute Azpeitian, Wadna Zestoako taldearekin batera.

Hain zuzen, biak dira eskualdean hango egoeraren inguruan lan egiten duten taldeak, eta bien ideia izan da 2007ko Sahararren Eguna Azpeitian antolatzea. Jon Aranguren azpeitiarra da Zestoako Wadna taldeko lehendakaria eta Sahararren Egunaren antolatzaitaileetakoa. "Azpeitian gertatzen denaren inguruan hausnartu genuen taldean; izan ere, Azpeitiak 14.000 biztanle ditu eta ez da ezer asko egiten Saharak bizi duen egoeraren aurrean". Beraz, egun hori hemen antolatzea eta sensibilizazio kanpaina abiatzea erabaki zuten.

Uztailaren 21erako egitarau zabala antolatu dute. Horrela, Oiartzungo Sahararen aldeko taldeak duen *haima* –desertuko toldea– muntatuko dute plazan, hango bizimodua ezagutarazi asmoz. "*Haima* barruan, Zarau-

tzen eta Aizarnazabalen bizi diren sahararrak egongo dira, tea presatu eta herritarrekin solasean". Arangurenen ustez, "Saharak bizi duen egoerarekiko interesa egon badago herrian, baina horren inguruan antolatzea falta da".

► **LAU FAMILIATAN.** Azpeitiko lau familiak 8 eta 12 urte arteko sahararrak etxean hartuko dituzte. "Oso garrantzitsua da umeak hona etortzea, hemen egiten zaielako lehen azterketa medikoa", dio Wadnako lehendakariak. Aranguren ek uste du sahararrek "oinarrizko bi behar" dituz-

tela: "Oinarrizkoena, euren lurraldera bueltatzea da, baina gaur egun dauden iheslarien kanpamenduetan behar-beharrezkoak dituzte medikamenduak".

Jendea ekitaldira azaltzeko gonbitea egin dute antolatzaitalek. "Norberak egin dezala barne hausnarketa eta gero bakoitzak aterara ditzala ondorioak". ◀

Egitaraua

11:30. *Haima* plazan.


12:30. Mohamed El Mamun Fronte Polisarioak Euskal Herrian duen ordezkariaren hitzaldia plazan.

14:00. Herri bazkaria Azoka plazan.

16:30. Trikuharri taldearen ikuskizuna plazan.

17:15. Puzgarriak, erraldoiak eta buruhandiak.





ERORI ARTE?

Madalena auzoan dagoen eraikina da goikoa, Urola ibaiaren ondoan dagoena. Erortzeaz den eraikina, hain justu. Erortzen da teila bat, erortzen da bestea... eta arduradunek ez dute entzuten. Hondatua dago etxea, eta martxa honetan erori egingo da, bota gabe. Urola ibaiaren ondoan dago, bai; baita jendea pasatzen den errepede ondoan ere.

► Testua: Enekoitz Esnaola ► Argazkia: Maider Zendoia

Efemerideak ▶ uztaila



Damaso Azkue auzoko etxebizitzak. MAIDER ZENDOIA

garileko
TIRABIRAK

Liburua aurkeztu, baltseoa debekatu,
etxeak eraiki... kontu asko izan da uztailan

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

UZTAILAK 6-2002 ▶

Zine Klubaren liburua. Azpeitiko Zine Klubak 25 urte fotograma artean liburua argitaratu zuen taldearen sorreraren 25. urteurrena ospatzeko.

UZTAILAK 9-1902 ▶

Azoka plaza bukatuta. Azoka plaza estaliaren arkitektu zuzendariak adierazi zuen lana bukatu zuela.

UZTAILAK 11-1887 ▶

San Inazio kalea. Erdi kalea San Inazio kalea izendatzea erabaki zuten. Uztailaren 30ean jarri zuten plaka berria bertan.

UZTAILAK 12-1922 ▶

Baltseoa debekatuta. Herriko zinegotziek dantza-helduaren inguruan zuten iritzia jaso zuen alkateak, aurreko igandeetan Eskuztako zelaian gertatutako iskanbilak zirela-eta. Udalak aho batez erabaki zuen ohiturari jarraitzea eta baltseoa debekatzea.

UZTAILAK 17-1987 ▶

Cesar Valverde gogoan. Ilunpe



Erdi kalea gaur egun. UZTARRIA

Elkarteak Cesar Valverderen oroimenez antolatutako pilota txapelketa jarri zuen martxan.

UZTAILAK 21-1997 ▶

Damaso Azkuen etxeak. Damaso Azkue poligonoan babes ofizialeko hamasei etxebizitza banatu zituzten.

UZTAILAK 27-1957 ▶

Oargi antzerkigintzan. Oargi elkarteak taldearen baitan eratutako antzerki taldea aurkeztu zuen Soreasu antzokian, *Damuba garaiz* obra antzeztuta. ◀

Pertsonaia ▶

15 URTE 'BELTZA' GABE.

Asier Urkizu *Beltza* mendizale azpeitiarra (1970) Xoxoteko harrobian eskalatzen ari zela hil zen 1992ko uztailaren 30ean, duela hamabost urte. San Inazio bezperako ezbeharrak atsekabea eragin zuen festan murgilduta zeuden herritarren artean.




Datua ▶

210

URTE AZOKA ETA FERIA OSPATZEN.

1797ko uztailaren 23ko udalbatzarrean jakinarazi zuten herriari bi azoka antolatzeko ahalmena eman ziotela. Aurrerantzean, janarientzako azoka astean behin egingo zuten (asteartean) eta ganaduarena hilean behin (hileko hirugarren asteazkenean).

Argazkia ▶



IZARRAITZ PILOTALEKUA ZABALIK.

Izarraitz Frontoia inauguratu zuten 1972ko uztailaren 25ean, Nikolas Zubeldiak egina. Beraz, aurten 35 urte beteko ditu Azpeitian Goiko Kalen den pilotalekuan. Urte hauetan, pilota partidez gain, beste hainbat ikuskizun egin dituzte han: saskibalo partidak, jaialdiak...

Kontua da... ▶

Bi irakasleren azkena




Imanol Elias
Odriozola

Igandea zen, 1941eko otsailaren 17a. Oso eguraldi nahasia egiten zuen; haize bolada handiak eta ekaizta. Bilbotik abiatu eta gaueko bederatzieta Donostiara iritsi behar zuen tren a ohi bezala gelditu zen Zumaiaiko geltokian. Hiru bat orduko atzerapenarekin iritsi zen, behin baino gehiagotan gelditu baitzen bidean elektrika indarrak gabe.

Geldialditxoa egin ondoren irten zuen Zumaiaetik eta, berrehun metrora, Urola ibaiaren gainean dagoen Artadiko San Miguel zubi gainera iristean, eletrika indarrak gabe gelditu zen beste behin. Indarra, ordea, haizeak zuen nonbait, eta bagoiak irauli egin zuen tren a bera; lehen hiru bagoiak ibaira erori ziren eta gainerakoak pendizean behera. Berehala zabaldu zuten gertatutakoaren berri Zumaian, baina gaueko ilunak ez zuen lagundu. Gertakaria ikusi zuten lekukoek ziotenez, asko ahalegindu ziren lanean zumaiaarrak eta Ospitale Militarreko soldaduak.

Lehen unean, hemezortzi hildakoren gorpuak aurkitu zituzten, eta zauritutakoak, berri, 50etik gora zenbatu zituzten. Hildako horien artean, Azpeitian lana egiten zuten bi oso emakume ezagun zeuden: Luzia Esnoz Agirrezabalaga (Urrestillako nesken andereño 'nazionala') eta Karmen Zurragondo Ruiz (Azpeitiko haurtzaro eskola 'nazionaleko' andereñoa). Biak donostiarrak ziren. Haiekin batera, beste azpeitiar bat ere hil zen: Martzelina Bereziartua Etxeberria.

Azpeitiko agintariek erabaki zuten udalbatzarrean herriaren sentimendu bereziaren berri aktan jaso eta otsailaren 23an Zumaian ospatuko zen hileta elizkizunera joateko batzordea osatzea.



Goiko argazkian, soldaduak, mojak eta zumaiaarrak zauritutakoei laguntzen. Behekoan, hildakoak eta zauritutakoak bagoietatik ateratzen. IMANOL ELIASEK UTZITA

Garai bateko Azpeitia ▶ Inazi Zendoiak kontatua

emakume GOGORRA

Inazi Zendoia Urreta baserriko ugazabak bi oinarri sendo izan ditu bizitzan: familia eta baserria. Gustura bizi da Xoxote magalean

▶ Testua eta argazkia: Maider Zendoia

Inazi Zendoia Azpeitiko Miraflores (Takolo) baserrian jaio zen 1927ko irailaren 22an. Hemezortzi urte zituela, Urreta baserrira ezkondu zen, eta bertan igaro ditu azken 62 urteak. Baserriko lanak eta familia izan dituela bizi-

modua aitortzen du. Baserrian makina bat haitzurkada emandakoa da. "Astoa bezala egin izan dut lana", dio. Haren ustez, gaur egungo egoera asko aldatu da; "famiaren kontzeptua", batik bat. "Bederatzi anai-arrebako sen-



Inazi Zendoia, baserriko sukaldean.

dian jaio nintzen eta nik neuk 11 seme-alaba hezi ditut". Gaur egungo familiak, oro har, "txikiak" direla deritzo.

▶ **EGUNEROKOTASUNA.** Garai jaiki eta goiz antzera erretiratzea gustuko du. Egunero, erretiral bera errepikatzen du. "07:00ak aldera jaiki eta lehendabizi oheak egiten ditut; ondoren, suapizten dut".

Zortzi urtean joan izan da Benidormera, lagunekin. "Oso ondo pasatzen genuen. 'Las chicas de oro' deitzen gintuzten". Azken hiru urteotan ez da joan hara, laguna makal antzera duelako.

Dena dela, etorkizunari begira ez du ezeri ezezkua emateko asmorik. "Oraindik gauza asko geratzen zaizkit egiteko. Autoa gidatzen baneki, Iparrameriketara joango nintzateke". ◀

Zaindu ▶ Gizentzea

Julian
Bereziartua



Gutxi dira ondo jateari uko egiten dioten pertsonak. Argi dago gehienetan indartsuagoak direla tentazioak gure borondatea baino. Horren froga nabarmena da mundu zibilizatu osoa ondo jatearen atzetik ibiltzea. Bestalde, frogatuta dago gizentasuna ez dela dohain bat, zama bat baizik, eta gure bizitza laburtzen duen eragileetako bat ere badela.

Gai horiez oso espezializatua zegoen Grande Covan irakaslea eta, hark zioenez, plateran gelditzen denaz gainerako guztiak gizendu egiten du. Norbaitek jana-riak plater txikietan zerbitzatzea ere proposatu zuen. Laburragoa da beste formula hau: J.E. = jan erdia.

Bi gizentasun mota daude: hipertrofikoa eta hiperplastikoa. Gizena dagoenak gaitz metabolikorik ez badu, denetik jan behar du, baina erdia. Era berean, ur asko edatea komeni da. Bestalde, gizentasun 'gaixoa' duenak, lehenbailehen joan beharko luke sendagilearengana, bizimodua ez nahasteko komunkabideetan ikusten dituen iragarkiek eraginda.

Azkenik, aipagarria da ehun kaloria ematen dizkigutela ondo-rengo janariak: koñak kopabatek, olio koilarakada batek, dozena bat oliba beltzek, bi koilarakada ezetik edo mokaduko pastelto batek.

VICENTE MEMBRILLERA ▶ jostailu saltzailea

Jostailua, hezitze ala dibertitzeko tresna da?

Bi erako jostailuak saltzen ditugu.

Zibota ala Play Station?

Nik nahiago dut zibotarekin jolastea.

Irudimena ala argibideak?

Argibideak beharrezkoak dira kasu askotan.

Jolasak, bakarka edo taldean?

Taldean.

Gustuko jolas bat?

Eraikuntzako jolasak; maketak, esaterako.

Zein da jostailurik salduena?

Molto motoa eta Baby Born panpina.

Pilekin edo gabe?

Gabe nahiago dut.


Zein da bezero hobea, Olentzero edo Erregea?

Olentzero.

Opari on bat?

Puzzle eder bat.

▶ Testua eta argazkia: Maider Zendoia



Abizena ▶ Eizagirre

Armarria.

Erdian gaztelu bat dago eta haren bi alboetan otsoak ageri dira. Goian mazoa eusten duen besoa nabarmentzen da.

Banaketa semantikoa.

▶ Eize- (haize) eta -agirre (ikusgai) hitzek osatzen dute.

Esanahia.

Haizeak jotzen duen gunea.

Abizenaren kokapena.

▶ Lazkao.

▶ Irun.

▶ Urnietia.

▶ Azpeitia.

▶ Oñati.

▶ Azkoitia.

▶ Bidania.

Abizenaren hedapena.

▶ Elgoibar (1682).

▶ Errezil (1612).

▶ Azpeitia (1612).

▶ Oñati (1772).

▶ Tolosa (1773).

▶ Zestoa (1742).

▶ Bilbo (1827).

▶ Elorrio (1575).

▶ Zumarraga (1478).

▶ Urretxu (1529).



Esandakoa ▶

“Ebateko daukazun dena emateko, %100ean sinetsi behar duzu egiten duzun horretan”

GORKA KARAPETO ▶
eskalatzailea

“Folk tradizionalari buelta eman nahi izan diogu, eta hura eta folk garaikidea nahastu ditugu diskon”

OLATZ PRAT ▶
musikaria

Zenbat ▶

84

UME LLANESERA.

Iraurgi SBkoak 84 haurrekin uztailaren 1etik 8ra Llanesko (Asturias, Espainia) kanpus batean hartzen ari dira parte.



domusa



Gertuko pasadizoa ▶

infernuko hauspoa BIDELAGUN

‘Faustino Azpiazu *Sakabi* 1916-1995’
liburutik hartua ▶ Argitaratzailea: Euskal
Herriko Trikitixa Elkarte ▶ 2007

**KAPITULUA ▶ Sakabi, soinua bizkarrean
(5. orrialdea)**

Gerra amaitu gabe zela artean, esku soinu txiki bat heldu da Urolako trenean Zestoako geltokira. Ez dakar izenik, eta inork ez daki ez norentzat ez zergatik heldu den hara. Garai hartan, ospitale militarra zen egungo bainuetxea, eta bertan zen Lasturko Sakabi baserriko Faustino Azpiazu, Teruelgo frontean zauritua. Pasieran, geltokiaraino heldu dela, bertako emakumeak ezagutu:

–Zer zabiltza, Faustino?

Sakabik ondo dagoela diotso, baina *pilarmonikarik* ezin jo izanak atsekabetzen duela. Horrexen hutsa.

–Hemen bada bat, ez dakit nondik etorria...

Erakutsi dio, eta bere soinua izan. Frontera eraman eta balak sabelean jo zuenean galdu zuen soinua!

Soinu eta guzti gerrara, hainbestekoa zuen afizioa.

Faustino Azpiazu, *Sakabi*, 1916an jaio zen, Debako Lasturren. Etxetik zetorkion zaletasuna, eta Donostiako Egia auzotik ekarritakoa, eta Larrinaga-Guerrini batekin hasi zen, osaba Antton Baltzarekin lehenengo, Madrixa Txikiarekin gero, Elgetarekin azkenik. Elgeta Eibarren bizi zen orduan, eta hara biltzen zitzaion Sakabi. Ez ibili gabe, horregatik. Ordu eta erdi oinez Azkarate gaineraino, autobusez



gero Elgoibarrera eta trenez Eibarrera. Bide luzea maixuarengana heltzeko. “Soinua bizkarrean beti, badakizue, afizioa”, ekartzen zuen gogora omenaldiak zirela-eta, kazetariak hurreratzen hasi zitzaizkionean.

Gerraosteak ez zuen bien arteko harremana eten, ordea. Sakabia baserrian egiten zituen egonaldiak Jacinto Rivas, *Elgeta*-k, Faustinori erakusten. Bizkaiko trikitixa Gipuzkoan sartzen ari ziren.

Ondoren etorriko da Aizarnazabalgo Joxe Urbietta, *Egañazpi* pandero jolearekin elkartzea Santa Engrazin. 1945a da. Baserri giroan, mendi erromeriak puri-purian daude. Urolaldean, bada non jo: Madarixa, Martitte, Zurruntzola... baina behe aldetik deitzen zieten sarriago: Iturriotz, Aia San Pedro, Zarautz, Orio, Aginaga, Usurbil... erromerietan zein ezkontzetan, oinez eta trenez joanda sarritan, *Egañazpi*-ren Lambrettan gero, anplifikadore atzean zutela.

–Saiaturik bada, hori Sakabi zen! -gogorazten dute haren doinuekin dantza egindakoe.

–Perfekzionista hutsa zen!

–Eta zenbat pieza zekizkien? Saio bakarrean 98 desberdin jotzen ikusia nago neu Aiako Altzolan! ◀



ORKATX KULTUR ELKARTEA

Erdi Kalea, 24



ostadar optika

OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ono, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak
egiten dira



81 53 35

Baserritarren eguna

uztailaren 22an

sagardo dastaketa - txekor errea - hegaluzea parrilan - gazta txapelketa - ganadu lehiaketa - bertsolariak - trikitilariak ...



AZPEITIKO UDALA
Festa Batzordea



Hitz gezidunak ►


	IZENA	▼	Arrisku	▼	Hangoak	▼	Toka, dut	▼	Alokairua
	Berri emalea		Zintzilik		Tantaloa		Saudi Arabiako hirib.		
	►		▼		▼		▼		▼
	Mirakuluak	►							
	Indarrez								
Aihotz	▼	Gai zuri preziatua	►	▼		Etxe-abere	►		
Abuztua		Gauzka				A birritan			
►		▼				▼	500	►	Röntgen
							Atzo gauean		Lurpuska
Jatorri atzikia	►			Nafarroako urtegia	►	Bokala	►	▼	Bokala
Altzatu, ezkutatu				Antolatu		Ezeztatu			Australia
►				▼		▼	Aurpegiko irekiune	►	▼
							Edari alkoholdun		Emakume izena
DEITURA	►					▼			▼
Bururatua									
►				Bokala	►	Bare	►		
				1		Bokala			
Bokala	►	Zeunden	►	▼		▼		Hitz, solas	►

* Urrestildar politikari ohia

Hitz gurutzatua ►


EZKER ESKUIN. 1. Bihi, garau. 2. Gure lurraldekoa, gipuzkoarra. 3. Bat gehi bat. Areago. Musika nota. 4. Larru. Galdetzaile bat. 5. Zakur. Hektarea adierazteko laburdura. 6. Landare usaintsu. Gora! 7. Kasik, abantzu. Sarrera nahiz irteera. Aluminioaren ikur kimikoa. 8. Katilu txikiak. 9. Modua, tankera.

GOITIK BEHERA. 1. Baldintzetan. Mina adierazteko interjekzioa, otx! 2. Gizaseme helduak. 3. Bat, zenbaki erromatarren arabera. Jardun. Iodoaren ikur kimikoa. 4. Xume, umil. Pilota jokaldi. 5. Lurralde. Jatorria adierazteko atzikia. 6. Moztu. Nafarroako herria, Bortzirietan. 7. Kontsonantea. Izaniko. Lehenengo bokala. 8. Zenbait arrainen arrautza multzoak. 9. Bizkaieraz, omen. Galderetan.




Soluzioak ▶


HITZ GEZIDUNAK



HITZ GURUTZATUA



UZTARRIAREN EKAINEKO ARGAZKI LEHIAKETA



Albergako iturri bat



Zer dago gaizki? ▶



ERANTZUTEKO EPEA ▶

uztailak 13 (ostirala)

NORA BIDALI ▶

Perez Arregi plaza 1, behea

AKATSA ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶


IRABAZLEARI SARIA ▶

Nereaneko erosketa txartela

PARTE HARTZEKO

BALDINTZA ▶

Uztarrrian bazkide izan behar da



Eider Iturralde Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 85. irabazlea. **Jostaldi dendako** txartela irabazi du sari gisa. Argazkian, Eider Iturralde –eskubian– eta Jostaldiko dendaria.

Eskulanetako gaiak ♦ Oihalak ♦ Eskuohialak
Mahai-zapiak ♦ Izarak ♦ Pijamak



40 URTE ZUEKIN


Bustinzuriko Errebala 15 ♦ Tel. 943 81 28 62



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net



Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	02 54 00
Anbul.-larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 71 94
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Jendartea)	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	943 15 09 94

LARRIALDIAK

112

Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemaia)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

EAE-ANV	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarria Kultur Koor.	15 03 58

Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79 / 943 08 06 88

Farmaziak gauez ▶ uztaila

1-12-16-21-22-30

Alberdi (Azpeitia).
943 81 59 74

9-18

Jacome (Azpeitia).
943 08 02 58

10-14-15-19

Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50

11-20

Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

13-17

Garcia (Azpeitia).
943 81 12 74

2-7-8-27

Gisasola (Azkoitia).
943 85 12 35

3-4-6-23-28-29

Ruiz (Azkoitia).
943 85 19 66



LOIOLAKO SANTUTEGIKO BISITARIEN ZENTROA.

Loiolako Santutegiko aparkaleku ondoan bisitarien zentroa zabalduta dute, eta turismo bulegoa eta interpretazio zentroa biltzen ditu gune berean. Astelehenetik larunbatera 10:00-13:30 eta 15:30-19:00 eta igandeetan 10:00-14:00 orduetara egoten da zabalik.

Garraioa ▶ (autobusen ordutegia: www.uztarria.com/azpeitia/autobusak)

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

902 54 32 10

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07

ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

UDALTZAINGOA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	09:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Igandea eta jai egunak:	09:00-13:00
▶ Kanpoko igerilekua:	11:00-20:00

KIROLDEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00
▶ Udan, Gabonetan:	08:30-13:30

IÑAKI ZABALA ▶ harakina

“Txekorraren zatirik gozoenak hegala eta saihetsaldea dira”

▶ Testuak: Maider Zendoia ▶ Argazkiak: Eusko Label eta Iñaki Zabalak utzita



TXIKITAKO AMETSA.

“Txikitan ez zitzaidan pasatu burutik harakina izatea”, dio Iñaki Zabalak. Marinela izan zen gaztetan hura, eta leku ugari ezagutu zuen (beheko ezkerreko argazkian, 17 urte zituela Indian ageri da). “Misiolari izan nahi nuen, baina arrazoi pertsonalengatik harakin izaten bukatu dut”.

Uztailaren 22an izango da Baseritar Eguna eta orduko protagonista bihurtu da azken urteotan txekor-jatea. Eusko Label elkarteak Azpeitiko sei harakinak aritzen dira lanean. Haien artean, Iñaki Zabala.

Nola antolatzen zarete txekorra erretzeko?

Txahala gauez ekartzen dugu, eta Eusko Labelen sartuta gauden sei harakinok muntatzen dugu plazan. Kanpotik etorritako erre-tzaile profesional batek erretzen du eta, hurrengo egunean, Misio Taldekoek laguntzen digute banatzen.

Zenbat kiloko txahalak ekartzen dituzue?

240 eta 260 kilo artekoak bidaltzen dizkigute, Urkaikotik.

Nola erretzen duzue txahala?

Ikatz jartzen diogu azpian, eta erretzaileak berak prestatutako likido berezia botatzen dio haragiari, ondo erretzeko.

Zenbat ordu behar dira ondo erretzeko?

Hamabi bat. Gutxi gorabehera, gaueko hamabietan hasten gara, eguerdiko hamabiak arte.

Sekretua?

Hain pieza handia izanda, oso garrantzitsua da barnealdea gordina ez uztea.

Jendearen erantzuna ona izaten al da jateko orduan?

Jendea gustura etortzen da. Ordubetean bukatzen da txekorra.

Txekorraren zatirik gozoena?

Nire gustuko zatiak hegala eta saihetsaldea dira.

Txekorrarekin batera jateko menurik egokiena zein da?

Sagardoa oso ondo doakio, egun horretan beroa egiten baitu normalean. Postrerako, gazta auke-ratuko nuke.

Zergatik txekorra?

Hemengo jendea txahal zalea da. Txahal haragia da haragi guztietan gehien kontsumitzen dena. ◀

MIKEL ZALBIDE ▶ euskaltzaina

“Euskal munduan erreferente handia izan da Patxi Altuna”

▶ Testuak: Enekoitz Esnaola ▶ Argazkia: 'Irutxuloko Hitza' eta Uztarria

Ekainaren 2an egin zuen Mikel Zalbidek (1951, Donostia) sarrera ekitaldia Euskaltzaindian, eta Patxi Altuna zena aipatu zuen, besteak beste. **Patxi Altunaren tokia hartu duzu Euskaltzaindian. Hura ez ezik, zuk beste azpeitiar batzuk ere ezagutzen dituzu...**

Bai, emaztea azpeitiarra dudalako: Marian Agirrezabalaga. 1978tik nago ezkontuta. Donostian ezagutu nuen. Neu donostiarra naiz eta Marian hara joan zen ikasketak egitera. Haren gurasoak Aranean bizi dira eta, ahal denean, aste bukatetan bisita egiten diegu.

Beraz, esateko moduan zara zer iruditzen zaizun Azpeitian euskarak daukan egoera...

Gaur egun Euskal Herrian dagoen egoerarik onena da Azpeitikoa, dudarik gabe. Zergatik?

Batetik, Azpeitia hiri bat izanik, kalean euskaraz egin egiten da, asko. Bestetik, lehen ez bezala egiten da, ahoz eta idatziz; izan ere, idatzikoan ere euskara Azpeitian sartzen ari da (errotulazioak gero eta gehiago daude euskaraz, komunikabideok zabalkunde handia duzue...). Ondorioz, etxean egiten da euskaraz, kalean egiten da, eta hori da hizkuntza batek bizirik eusteko daukan oinarriarik sendoa. Euskarak lehen ez zeukan lekua du Azpeitian. Osasun seinale da.

Hala ere, orain dela urte batzuk arte hemen pentsatzen zen euskaraz hitz egiteagatik euskara salbatuta zegoela. Normalizazio planak ez ziren hasi duela lau-bost urtera arte. Azpeitian euskarak bizi izateko aukerarik izan du bertako hizkuntza moduan baina, kantuetatik eta aparte, idatzikoa gutxi zegoen. Orain bilatzen dena, gizartearen ahalik eta esparru gehienetan euskaraz bizi ahalizatea da, ahoz eta idatziz. Hala, alde horretatik Azpeitian pausoak ematen ari zarete. Beharrezkoa zen.

Azpeitian familia duzu, eta, aipatu bezala, azpeitiar bat ordezkatu duzu Euskaltzaindian: Patxi Altuna.

Aspalditik ezagutzen nuen Patxi. 15-16 urte nituela hura ospetsua egin zen Donostian



gazteon arteon-eta, igandez ematen zituen meza garaiko sermoiengatik. Gero, neu unibertsitatean hasi nintzenean, euskara klaseak antolatu zituzten bertan eta ea neuk emango al nituen galdetu zidaten. Ni euskaraz alfabetatu gabea nengoen baina esan zidaten bazela liburu bat Patxi Altunak ateratakoa, *Euskera, ire laguna!* (1967), eta ikusteko. Beste liburu bat ere atera zuen hark: *Euskal aditza. Batua? Baturakoa?* (1971).

Eta?

Oso liburu argiak ziren, izugarri erraz ulertzekoak. Euskararen morfologiaz, aditz morfologiaz dakidan gehiena, *Euskal aditza. Batua? Baturakoa?* liburutik ikasitakoa da. Gero etorri dira liburu sakonagoak-eta, baina ikasi, ikasi esaten dena, liburu hartan ikasi nuen nik. Oso balio handia zeukan Patxik gauzak argi azaltzeko, aparteko dohaina zuen. Bestetik, EUTGn irakasle zela, mintegiak ere antolatzen zituen euskararen inguruan lan egiten zuten gazteentzat, eta joaten ginen geu.

Euskaltzaindian ezagutuko zenuen gero, ezta? 1983an euskaltzain urgazle izendatu zinduten.

Bai, laguntzaile moduan. Aurretik ere eman nien laguntza txikirik. 1983an urgazle gisa hasi nintzenean, orduko lanetako batzuk hitz eratorriak nola egin, hitz elkartuak nola eratu eta nola idatzi, erdaratik hartzen ditugun maileguak euskaraz nola idatzi, eta halako kontuak ziren. Horretarako batzordea eratu zuten Euskaltzaindian, eta Patxik bilera gehienetan hartu zuen parte. Neuk eramaten nuen autoz hara eta hona.

Pasadizorik izango duzu, beraz.



Patxi Altuna zena.

Patxi Altuna

Patxi Altuna Bengoetxea Azpeitian jaio zen, 1927ko irailaren 8an. Batxilergoko ikasketak Xabierren (Nafarroa) egin zituen. 1945ean Jesuiten Loiolako nobiziatuan sartu zen, eta 1958an Teologiako ikasketak hasi zituen Oñan (Burgos, Espainia); Innsbrucken (Austria) bukatu zituen. Apaiz ez ezik, Unibertsitateko irakasle izan zen.

Euskaltzaindiak 1965ean izendatu zuen euskaltzain urgazle, eta euskaltzain oso 1980ko uztailaren 31n, Jose Maria Lojendioren ordeiz. Sarrera hitzaldia Azpeitian egin zuen, 1981eko urtarrilaren 24an, Joannes Etxeberri buruz. Gramatika batzordeburua izan zen urte askoan.

Inor gutxi bezala ezagutzen zituen Altunak euskal idazle klasiko aitzindarien lanak, eta haietako askoren lanen edizio kritikoak apailatu zituen.

Baite Azpeitiko Euskara Elkartek –gero Uztarria Kultur Koordinakundearekin bat egin zuen– ohorezko bazkide izendatu zuen 2001ean, eta Azpeitiko Udalak ere omendu zuen. 2003an Uztarriak haren biografia argitaratu zuen, Josune Etxeberriak idatzia.

Gaitz baten ondorioz, 2006ko urtarrilaren 20an hil zen, San Sebastian egunez, Loiolan. 78 urte zeuzkan.

“Euskararen morfologiaz dakidan gehiena, Altunaren liburu batetik ikasitakoa da; liburu argia zen”

Bai, asko ibiltzen ginelako orain Nafarroako bilerara, gero Arabakora... Oso gizon irribarretsua zen lanetik kanpora, txisteetarako emana, eta, batik bat, izugarri bizikleta zalea zen. Inoiz bilerara bidean gindoazela, “aizu, kafetxo bat hartuko al dugu?”, berak, halako tabernan geratuko ginela, “telebista ere badauka...”, eta bale, gelditu eta telebistan zer eta Tourra. Jakina, hark kafea baino gehiago nahi zuen tabernan. Gizonak ezin geratu Tourra ikusi gabe. Hura zaletasuna zeukana! Bizi egiten zuen.

Besterik?

1987an-edo, nazioarteko hizkuntz arlorreko hainbat aditu etorri ziren Euskaltzaindiaren ekitaldi batera, Patxi ere han zen, eta go-goan daukat bukaera aldera denak Azpeitira eraman gintuela, autobusean sartuta; Joshua Fishman ezaguna eta konpainia. Loiolatik, berriz, Getariara. Udalak hartu gintuen, antxo batzuk jan genituen, txakolin pixka bat edan... Norbaitek soinu atera zuen eta denok dantzan bukatu genuen; tartean zen Patxi.

Urte asko pasatu zituen hark Azpeititik kanpo. Zer zioen herriaz edo azpeitiarrez?

Neuk entzunda ez dakit, baina badakit askotan esaten zuela euskara batuaren hasiera garaian Azpeitian zalantza asko izan zela horretaz; besteak beste, ‘h’ erabili-ez. Aurrez aurreko eztabaidak izan zituela esaten zuen. Batuaren defendatzaile sutsua zen.

Zeuk Euskaltzaindian egindako sarrera hitzaldian esan zenuen ohorea dela zuretzat Altunaren lekua betetzea.

Patxi euskal munduan erreferente handia izan delako. Euskara bertakoa, herrikoa, jatorra hain

“Hura ez ulertzea oso zaila zen; edozein euskaldunek lehenengoan ulertzeko euskara egiten zuen”

ondo ezagututa ere, euskarari gorabideko formulazio zabal eta osatuagoa emateko ahalmen bizia izan zuen, eta horretan maisu izana da, beste hainbat gauzatan bezala.

Esaterako?

Gauzak azaltzen. Patxi ez ulertzea oso zaila zen, bai hitzez eta bai idatziz. Aitortzen dut testuinguru edo jardun esparru batzuetan haren hitz egiteko modua jasoe-gia bezalakoa zela baina, oro har, Patxik hitz egiteko zeukan dohain hori maisu batena zen. Edonork, edozein lekutako euskaldunak lehenengoan argi ulertzeko moduko euskara egiten zuen eta, gainera, euskara hori dotorea zuen, argia, landua.

Patxi Goenaga da orain azpeitiar euskaltzain oso bakarra.

Eusko Jaurarlitzaren Hezkuntza Sailak EGA sortu zuenean [han dihardu lanean Zalbide], lurralde bakoitzean arduradun bana behar genuen eta urteetan izan zen Patxi Goenaga Arabako arduradun. Hala, harreman handia izan nuen harekin. Lehendik ere ezagutzen genuen elkar.

Zeuk zer egin nahi duzu euskaltzain oso gisa?

Eguneroko nire lanak ez dit aukera handirik emango [Donostiatik Gasteizera bueltaka ibiltzen da astegunez], baina Euskaltzaindian, batez ere, euskararen historia soziala bildu eta edonork erabiltzeko moduan jartzea izango da nire eginbeharra, *Joannes Etxeberri* proiektuan. Hau da, nork egin izan du euskaraz, norkin, noiz, euskarari buruz zer iritzi egon diren garai batean-beste, leku batean-beste, zer planteamendu egin izan diren... Joseba Intxausti da proiektuaren arduraduna, eta laguntzen hasia naiz. ◀

Euskararen gorabeherak ▶



GORA. Batean 'publizitatea'...

Azpeitiko karrera batzuen atarian publizitatea sartzeko postontziak daude. Goiko hori herriaren erdigunean dago. Euskaraz. Egin euskarari ere publizitatea!



BEHERA. ...bestean 'publicidad'

Beste batzuek, ordea, iragarkiak jasotzeko atariko txokoa gazteleraz jartzen dute. Goiko karrera hartatik metro gutxira dago behekoa. Alde handia dago, ordea.



Euskararen eskubideen urraketak salatzen / bideratzen ▶

Behatokia 902 19 43 32

Elebide 012

www.euskararentelefonoa.com

www.euskadi.net/elebide

Zer egin? ▶

“Euskararen erabilera bultzatzeko euskalgintzak antolatzen dituen ekintzetan parte hartu eta, behar bada, antolaketa lagundu”

Euskal Herrian Euskaraz 'Bideak' eskuliburutik hartua; Uztarrian dago edonoren eskura

Bota lasai ▶

Zalantza

Orain dela aste batzuk Inazio Arregik burdina Xoxo-tera igo zuenean, oso arraroa egin zitzaidan hura gazteleraz entzutea Radio Euskadin (uste dut Radio Euskadi zela irratia).

Komunikabideetan hitz egiten duten eragile azpeitiarrek, Azpeitiko gaietan euskararekiko konpromisoa hartu (azpeitiarren %88 euskaldunak gara) eta euskaraz soilik egin beharko al litzukete adierazpenak?

Egunkarietakoek badute aukera itzultzeko, telebistakoek ere bai azpigituluak jartzeko eta irratikoek ahotsa gainetik jartzeko.

Bestela, euskaldunok adierazpenak gazteleraz ere eginda, ematen du euskaraz aritzen ez diren Euskal Herriko komunikabideek ez dutela euskararen beharrik.

▶ Iñaki Odriozola

www.uztarria.com/hizkuntza
eskubideak-en emandako iritziak



altzari bereziak

zu ere berezia zarelako

Lasao
• egurrezko altzaria




Lasao Industrialdea z/g
Tel. 943151182

www.lasao.com



udaberria - uda
2007



Santi Lazkano Kirolak



Jose Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50

Elie Beobide
dekorazio estudioa

Uztailetik aurrera leku berrian, Harzubia 11n

Eta orain bereziki etxebizitzaren eraberritzean, lokalen diseinuan eta proiektuetan espezializatu gara. Obretako materialen erakusketa.

Esan zer duzun gustuko eta guk egingo dizugu beste dena; espazioaren diseinu egokia, materialen aukeraketa, gremioen koordinazioa...

Eta gainera, altzariak - argiak - alfonbrak, koadroak, opariak...

zatoz gurera!



Tel. 943 81 03 73 Fax: 943 81 58 01 eliebobide@euskalnet.net www.eliebobide.com